



uk

109. zenbakia / 2006 azaroak 19

# V Salón del Cómic de GETXO

## GETXOKO V. Komiki azoka

PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS  
AREETAKO GELTOKIA PLAZA

abenduak **1·2·3**  
diCiembre  
11:00-14:30 / 17:00-24:00

Precio  
Preziosa  
**2€\***  
(Para todo el día / egun osarako)  
\* Con la roja de BBK + 1 grátia

## UK galeria > Aitor Ortiz



Puntakoen artean puntan dabil Aitor Ortiz (Bilbo, 1971), bere lanek oihartzun handia daukate bai hemen, baita atzerrian ere. Gazte-gaztea bada ere, bere argazki lanak oso estimatuak dira eta makina bat bilduma partikularretan eta museotan daude. Besteak beste, Madrilgo Reina Sofia, La Caixa, Artium, IVAM, Guggenheim Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia... zerrenda oso luzea da. Zer esanik ez, Euskal Herrian zein atzerrian erakusketa mordo eginak ditu; Bogota, Madril, Luxemburgo, Bartzelona, Miami, Munich, Pekin... Zerrenda hau ere amigabea da. ABC saria eskuratu zuen 2002an, Alejandria Bienalean Sari Nagusia eskuratu zuen 2001ean, edota PhotoEspañan artista-berri onena izendatu zuten 2000n. Bestalde esan behar da era guztietako arkitekturen argazkilari moduan prestigio handia lortu duela Aitorrek.



«Gezurtiak zer duen merezi? Egia esatean ez sinetsi» Euskal esaera zaharra

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Maria Bayo Getxo Antzokian, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako etorbidea Negurin.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Mikel Lauzirika.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Lehengo udaltzainak, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Bidaia globoan, 1890.
30. ERREPORTAJEA. Getxoko urbanizatzea, Unai Brea
34. BERBETAN. Pedro Garcia Larragan, U. B.
38. FOTOGRAFIA. Uribe Kostako errekek, Asier Mentxaka.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Zinebi jaialdia Getxon.
43. MUSIKA. Ahobete kanta webgunea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Mahai-ingurua Getxon. Liburu erreseinak.
45. KIROLAK. Urdulizko eskubaloi taldea.

### EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Helena Golab dantzaria.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Gaztelu tabernara.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Neguritarrak Jolasetan, 1945. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Ane Pikaza.



34 Pedro Garcia Larragan



11 Mikel Lauzirika



26 Lehengo udaltzainak



18 Plataforma Tirante



21 Amaia Valle



54 Ane Pikaza

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERRREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILAK: Unai Brea, Bittor Egunrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamiruaga, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Leпоan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAK



# gugeu

## Abenduaren 3a

**Euskararen eguna** ospatzen da urteko azken hilaren egun horretan. Erraza da esatea euskarak urteko egun guztiak behar dituela eta ez bakarria. Erraza esatea ere bada ez garela egun seinatu horien zale, hau da, emakumearen eguna, gay eta lesbianena... Horrelakoak gaur egun ere ospatzeko beharra baldin badago, zeozer ondo ez dabilen adierazle dela hori. Eta ados egon gaitzke honekin. Baina hor nonbait, praktikoagoak izan gura dugu oraingoan, eta ez betiko moduan hain negarti edota ezkor azaldu.

Euskararen egunaren harira, makina bat ekitaldi antolatu dituzte eskualdean. Egia da, guztiak udaletako euskara zerbitzuek bultzatutakoak direla eta, akaso, erakunde ez ofizialen ekimenen falta igartzen dela.

Beste herrietakoak gutxietsi barik (bakoitzak bere neurrian dihardu-eta), *Gu geu* honetan Getxoko Euskara Zerbitzuak prestatu duen kultur programa oparoa azpimarratu behar dugu: *Kutxidazu bidea Ixabel* filma, Euskarashow (etorkinak eta bertakoak elkarrekin kantuan), Umore Jardunaldiak... Euskaraz gozatzeko makina bat ekitaldi atsegin. Guztiak aprobeztatzekoak!

Batzuek esango dute baliabideekin erraza dela horrelako egitaraua aurrera ateratzea. Guk, berriz, baliabide horiek guztiak Udalak euskararen eta euskaldunen mesedetan ipintzea poztekoa dela diogu. <sup>4</sup>

UK-ko lantaldea

## matematika aplikatua



Gorka Vázquez

leihatila > Maddi Albizu

## Ur korronteari oztoporik ez

Urriaren 30ean Bilbon “boteiloia” debekatzen duen udal ordenantza indarrean ezarri zen. Euskal gizartean kalean edatea oso ohitura zabaldua da. Edozein herritako udako jaietako txosnak, Getxoko Paella Eguna, gure herrietako terrazak edo gure kaleetako tabernetako inguruak kale gorrian edatearen errituala gauzatzeko leku apartak dira euskaldunontzat. Gaztetxoek kalean edatea, ordea, ez dago hain ondo ikusia, eta, hortaz, horretarako, hau da, “ez ikusteko” Bilbok bere ordenantza atera du. Ez dezagun geure burua engaina. Lur azpiko ur korronteari kanpora irteteko zirrikituren bat beti bilatuko duen era beretsuan, gaztetxoek ere beraien gaztetasunaz gozatzeko lekuren bat edo beste bilatuko dute ezinbestean. Metaforarekin jarraituta, txarrena izaten da lur azpiko korrontea ubide egoki batetik eramaten ez bada gutxien espero dugun tokitik bortizki atera daitekeela. Beraz, urari oztopoak jarri beharrean, hobe ubide egokia bilatzen badiogu. <sup>4</sup>

[irudia]



GETXO ANTZOKIA, 2008KO AZAROAREN 2A

**Udazkeneko kontzertuak /** Sufrituta, Getxo Antzokiko oilotegian ezkutaturik argazki hau atera zuen gure argazkilaria. Izan ere, jendez lepo zegoen antzokiko erabateko isiltasuna piano jotzailearen notek eta Maria Bayo soprano handiaren ahotsak baino ez zuten urratzen. Tira, horietatik eta gure argazkilaria erretratu egokia hartu arte egin zituen klik guztiek. <sup>m</sup> / Argazkia: **Asier Mentxaka**



**Bizkaiko**  
Bertsolari Elkartea

**BFA**  
**DFB**

**bbk**

**Bizkaiko Txakolina**  
Euzko Lehiaketa

# bapatean bizkaia

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 06

Fredi Paya  
Iratxe Ibarra  
Oihane Enbeita  
I aki Iturrioz  
Joseba Goienola  
Onintza Enbeita

## GETXO

azaroak 26, domeka  
17:30ean



**uk**



**Iraganez doa denbora\* beti / ALGORTAKO ETORBIDEA NEGURIN**

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; txoriak



Zozo mordoa Plentzian

Testua: **Xa2 Paya**  
Argazkia: **Asier Mentxaka**

**1**

Telefono kabletik so anbizioz zenbat zozo; nahiz eskegiz deia jaso, ezin izan mezu-uso.

**2**

Haizearen betelana negu hotzak badarama, hiru lerroz pentagrama eta hegan nota-andana.

**3**

Zeinen polit, zeinen bare, baina kontuz pasa gabe, hor edonor da zizare baita Tippi Hedren ere.

\* Doinua: Itsasoa laino dago

## telebista &gt; Getxoko Lasatarrak Erletxea saioan



Patxi Lasa aitaren ideia izan zen lehiaketan sartzea

**ETB-1en** ematen duten *Erletxea* saioa lehen reality antropologikotzat jo dute lehiaketako arduradunek. Hain zuzen ere, biziraupeneko norgehiagoka da, elektrizitate eta edozein baliabide barik ekin behar diote-eta lehiakideek abenturari. Gaur eguneko bizimodu eroso alde batera utzi eta bi herri abandonatuetan bizi behar dute. Guztira, 16 dira parte hartzaileak (8 gizon eta 8 emakume), tartean, Getxoko Lasa sendiko kideak. Patxi Lasa aitaren ideia izan zen *Erletxe*ko castingera aurkeztea, metroko geraleku batean iragarkia ikusi ondoren. Familiako kide guztiak aurkeztu ziren probara: Maddi emaztea, Ander, Alain, Haizea eta Patxi bera. Neskatoak, baina, ezin izan du parte hartu, 15 urte besterik ez du-eta. Horrelako erronkak gustukoak dituzte Lasatarrek eta, egin beharreko lana gogorra izan bada ere, esperientzia gomendagarria dela uste dute. Helduko ete da Lasatarren bat finalera? Zorte on! <sup>m</sup>

## euskara show &gt; etorkinak eta bertokoak alkarregaz kantuan



Hitzordua: abenduaren 1ean Algortako Kasinoan

**Bertokoak** eta etorkinak hizkuntzen zein kulturen inguruko proiektu batean elkartzen dituen ekimena legez definitu dute Euskara Showa proiektuko arduradunek. Hain zuzen ere, elkarlanean landu beharko dituzten kantu sorta baten emanaldian datza, hau da, parte hartzaileek atzerriko kanta bat euskaratuko dute edo batak bestearen jatorriko abesti bat landuko du; etorkinek bertokoa eta bertokoek atzerrikoa. Horretarako, herriko hainbat bizilagun parte hartzera deitu ditu Getxoko Euskara Zerbitzuak. Ekitaldia, Euskal Kulturaren VII. Jardunaldien barruan antolatu dena, abenduaren 1ean izango da, Algortako Kasinoan 20:00etan. Aukera ezin hobea, beraz, kultura ezberdinetako jendea lagun giroan ikusteko. Gainera, gura duenak karaokean kantatu ahal izango du, jende guztia gonbidatuta dago-eta. Anima zaitetz, ez zara damutuko! <sup>m</sup>

saiaz getaria



HOTEL


Roke Deuna 25  
280808  
Getaria  
Gipuzkoa



..harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

## begizorrotz > Unai Basurkoren itsas-bidaiaren jarraipena



Basurkoren ibilbidearen zati bat

**Tabernetan** jan eta edan baino askoz ere gehiago egiten dela gauza jakina da. Posta zerbitzu modura ere erabiltzen ditugu batzuetan. Zenbatetan ez ditugu, bada, utzi giltzak, paketeren bat, CD bat edo beste edozer konfiantzazko tabernarien esku! Topagune, bilgune ere badira tabernak. Kartak, ligako pelotilla... makina bat kontu antolatzen dira tabernetan. Guk ekimen bitxi honekin egin dugu topo Algortako Lasai tabernan. Unai Basurko belaontzian munduari egiten ari dion biraren jarraipena egiten dute egunero internetez eta hori argazkiak erakusten duen etxepanelean islatzen dute. m

## berbalagunak > aurten ere taldea abian ipini da Getxon



2006-2007 ikasturteko berbalagunak

**Azaroaren 9an**, aurtengo Berbalagun taldearen aurkezpena eta luntxa egon zen Aldai patronatuan. Momentuz 100 lagunek eman dute izena eta aurreko urtean ez bezala, gazte askok parte hartuko dute aurten, eskoletatik at gure hizkuntza erabiltzeko gogoia erakutsi dutelarik. Kalean euskaraz egiteko aukera eman gura du **EGIZU!** Getxo euskaldun elkarteak egitasmo honekin. Giro onean, mendi irteeretan (Ogoñoko itzulia) zein beste ekintza kulturaletan (Iruña, Belea, eta Gasteizeko katedraletara bisita) parte hartu ahal izango dute proiektuarekin bat egin dutenek. Euskara ikasten diharduen jendeaz gain, antolatzaileek, euskara menperatzen duen eta lanetik edota ikastegietatik kanpo erabili gura duen jendea proiektuan parte hartzera animatzen dute. Izan ere, gure hizkuntza, erabiliaz bakarrik mantenduko dugu bizirik. m



"Latin klaseak ere ematen nituen. Nire arrebak profesor de lenguas muertas nintzela esaten zidan. Pentsa zelako esperantza zeukan euskerarengan"

## Mikel Lauzirika Leturia > euskara irakaslea

**Itsasondon (Gipuzkoa)** jaioa izan arren, urte asko eman ditu Mikelek Uribe Kosta euskalduntzen. Hamar urte zituela etorri zen Leioara bizitzen, nahiz eta gurasoak *lekixarrak* zituen. Berak esan bezala *"herriak emandako euskara"* da berea, baina asko balio izan dio gazteei eta ez hain gazteei euskararen atak zabaltzeko. 1961ean heldu zitzaion euskara irakasle izateko lehenengo eskaintza, Getxoko Udalak batzarretara deitu zuenean: *"Abadea, alkatearen alaba eta beste batzuk zeuden bileran. Alkateari baimena eskatu behar geniola esan zuten. Ni ez nengoen ados, matematika klaseak emateko ez zen baimenik behar eta"*. Baina bilera haren ostean ez zuten Mikel berriro deitu, auskalo zergatik. Urte batzuk geroago Astrabuduan aurkeztuko zitzaion hurrengo aukera eta harrezkero buru belarri ibili da beharrean: Gobelako gau eskoletan, Areetako batzokian... EGArako ikasteko denbora ere atera zuen Mikelek garai hartan, baita bikain atera ere: *"Orduan pentsatu nuen latsa barik eman nitzakeela klaseak"*. Poztasun handia ematen dio garai batean bere ikasle izandakoak orain ikastoletan irakasle direla ikusteak. Baina desberdintasun handiak ikusten ditu lehenengo eta gaur egungo euskara ikasleen artean: *"Orain gazteek profesionalki behar dutelako ikasten dute; orduan kontzientziagatik zen"*. Ikastoletan dabilzan umeak erdaraz entzutean, *"nire seme-alabak adibidez"*, euskararenganako esperantza galtzen duela aitortu digu irakasleak, *"baina euskal giroa ikustean atzera piztu egiten zait"*. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**



### AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztailean

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / 94 491 17 86



# Lehenengoz 100 milioitik gora

Datorren urterako Getxoko Udalaren aurrekontua 104,3 milioi eurokoa izango da, eta arduradunek adierazi duten legez, gehien haziko diren alorrak **Kulturarena eta Hirigintzarena** dira

Pasa den hil amaieran, EAJ, EA eta EB-Berdeak hirukoaren aldeko botuakaz eta PSE-EE alderdiaren kontrako bozkagaz behin-behinean onartu zituzten 2007ko Getxoko Udaleko aurrekontuak. Horren albotik, PP alderdiko ordezkariak areto nagusitik irten ziren aurkeztu zituzten 106 zuzenketatik 50 baliogabetu zizkietelako.

Hala, PSE-EE eta PP alderdiak bat datoz zenbait argudiotan aurrekontuen aurka bozkatzeko, berbarako: arlo desberdinen arteko banaketa desorekatua dela diote, lurzorua erosteko aurrekontuaren igoera hobesten dute, etxebizitzaren alokairua sustatzeko organo bat sortzeko beharra ikusten dute, udalerriko auzuneak lotzeko mikrobusen ibilbideak sortzea proposatzen dute, Udaltzaingoaren presentzia indartzea, adb. Areetan komisaria berri bat eraikiz, etab.

Hala eta guztiz ere, datorren urterako aurrekontuak hirukoaren aldeko botoakaz behin-behinean onartu dituzte, eta lehenengo biderrez 100 milioi eurtik gorakoak izango dira, 104,3 milioi euro hain zuen. Udalkutxaren laguntzen hazkundearen ondorioz, aurreikusitakoa baino 300.000 euro gehiago izango ditu Udalak datorren urterako. Udalar berari dagokion zenbatekoa ia 96 milioi eurokoa da, aurten baino %12,5 gehiago. Hiru Erakunde Autonomoiei dagokionez, Jesusen Bihotza Nagusien Egoitzak 4.944.032 euroko aurrekontua izango du (%1 egingo du gora), Andres Isasi Musika Eskolak 2.255.197 euro eta 6.000.000 eurotik gorakoa izango da Kultur Etxearena eta



Kultur arloaren inbertsiorik handiena Getxo Antzokiaren zaharberritzerako erabiliko da, 2007an 4 milioi eurotik gora

Getxo Kirolak-ena. Azkenengo hiru partidek %8 igoko dira. Udal arduradunek azaldu dutenez, inbertsiorako kopurua %40 haziko da eta zorretan sartu barik egin ahal izango diren inbertsioen diru kopurua 20,5 milioi eurokoa da. "Zorretan sartu gabe eta udal ondarea saldu gabe ari gara inbertitzen; Ondare hori gerona behar-beharrezkoa izango dugu enpresa eremua

**«Zorretan sartu gabe eta udal ondarea saldu gabe ari gara inbertitzen»**

sortzeko, etxebizitzara tasatuak egiteko, ganapen bidean diren guneetan kirol azpiegitumak egiteko..." adierazi du Getxoko alkate Iñaki Zarrakoa. 2007ko aurrekontuetan gehien haziko diren alorren partidak hurrengoak dira: Kulturarena (%34,5 igoko da; 16.722.424 euro), Hirigintzarena (%14,2 gora; 34.-

612.329 euro) eta Gizarte Zerbitzu-ena (%7,4 igo; 11.353.521 euro). Presidentzia arloak 14.776.677 euroko aurrekontua izango du (%6 gutxiago), eta hiru izango dira sustatuko dituen alor nagusiak, Gazteria, Bakearen Kultura eta Euskara Biziberritzeko Plana. m

## Zenbaki batzuk

- Udalaren aurrekontua: 95.935.584 euro
- Presidentzia arloa: 14.776.577 euro
- Kultura arloa: 16.722.424 euro
- Hirigintza arloa: 34.612.329 euro
- Gizarte Zerbitzuak: 11.353.521 euro
- Ingurumena: 586.650 (%5,3 gutxiago)
- Nagusien Egoitza: 4.944.032 euro
- Andres Isasi Musika Eskola: 2.255.197 euro
- Getxo Kirolak eta Kultur Etxeak: 6.000.000 euro baino gehiago

## Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, hilaren 25ean



Indarkeriaren biktimei lagungarri zaizkien telefono zenbakiak 30.000 eskuorri buzoneatuko dituzte

**Emakumeenganako** Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira Getxoko Udaleko Berdintasunerako arloak zenbait ekitaldi antolatu ditu, herriko emakume elkarrekin elkarlanean. Azaroaren 24an Getxoko Emakume taldeek Areetako Xake plazan elkarretaratze isila egiteko deialdia egin dute (20:00). Egun horretan bertan *Sueño de una mujer despierta* film laburra emango dute Cinema Paradiso zirkloaren barruan (22:00, Getxo Antzokia), eta filmaren zuzendari Azucena Fuentesek berak aurkeztuko du emanaldia. Hurrengo egunean, nazioarteko andrazkoenganako indarkeria salatzen duen egunean, Bilgune Feministak ekital-

diren bat antolatzeko asmoa dauka eta ziuerrnik Telletxen egingo da eguerdian. Beste ekitaldi bat ere iragarri dute Berdintasunerako arlotik, Asuncion Valgañon egileak *Historias de maltrato a mujer, sexo, violencia y miedo* liburua aurkeztuko du abenduaren 12an. Amaitzeko, Getxoko Udalak urrian sinatu zuen gaiari buruzko deklarazio instituzionala, besteak beste, halaxe dio: "Emakumeenganako indarkeria emakumeen desberdintasunean oinarritutako ordena sozial baten adierazpena da... Beraz, argi izan behar dugu, emakumeenganako indarkeria saihestu nahi badugu, aurrera egin behar dugula emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz." m

## GRAFFITIAK EGITEKO GAZTEEN BILA DABILTZA

Udalerrian zehar aniztasunaren eta kulturarteko bizikidetzaren gaineko 5 horma-irudi margozteko asmoa dauka Getxoko Udalak. Horretarako, Udal Gazteria eta Immigrazio Zerbitzuak Getxo eta inguruko 30 urtetik beherako gazteei dei egin gura die, eta helburuetako bat bertoko eta atzerriko artistek parte hartzea da. Izena emateko epea hilaren 27ra arte dago zabalik eta materiala Udalak ordainduko du.

Izena emateko: 94 491 01 14

## LANORDUETAN PORTU ZAHARRERAKO BIDEA ITXITA EGONGO DA

Hil hasieratik La Olatik Portu Zaharrerako bidea itxita egongo da garraioentzat asteleheneetik barikura lanorduetan. Ostera, oinezkoek ez dute ezelako mugarik edukiko. Lanorduetatik kanpo eta batez ere aste-akabuetan bidea zelanbait egokitu egingo dute (semaforo bategaz edo) garraioak pasatu ahal izateko. Itxieraren arrazoiak tarte horretan egiten dabiltzan saneamendu eta paseoaren zabalitze lanak dira, eta 3 hilabete inguruko iraupena izango dute.

## GARAPENERAKO LANKIDETZAKO DVD-A

Udaleko Garapenerako Lankidetzara arloak plazaratuko duen DVDaren helburuak hurrengoak dira: herriko GKEek egiten duten lana zabaldu, herriararak erakunde horiek harremanetan ipinitzeko bideak erraztu eta elkarrekin lan egin dezaten bultzatzea. DVDa Getxotik Mundura ekimenean aurkeztuko dute.

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

**BILBO BERRI**  
Bizkerre, s/n - ALCORTA. Tel. 94 430 68 81

## Ludoteka bi

eta Gazteleku bat zabalduko dituzte datorren urterako

**Getxoko Udalak** umeentzako bi ludoteka eta gazteentzako Gaztelekua zabalduko ditu datorren urtean. Horretarako lehenengo pausoak eman ditu dagoeneko, berbarako, Urgulleko kultur etxe ohiaren aretoan aspalditik dihardute atontze lanetan bertan ipiniko dute eta Gaztelekua. Horrez gainera, oraintsu erosi du Udalak Aita Felix de la Virgen kaleko (Algorta) lokala, hantxe ludoteketa

### «San Nikolas plazaren inguruan eta Urgullen (Algorta) eta Eskoletako plazan (Areeta) egongo dira egoitzok»

tako bat zabaltzeko asmoa daukalako. 395.000 euro ordaindu du San Nikolas plazaren inguruan dagoen 300 metro koadroko lokalagatik eta hurrengo uda aldera martxan jartzea aurreikusi dute. Umeentzako beste gunea Areetako Eskoletako plazan egongo da, urte askoan Ehiza eta Arrantza elkarteak (Udalak utzita) izan duen egoitza ohian, hain zuzen. Lokala egokitzeko lanak hasi dituzte dagoeneko eta datorren udaberri-rako edo zabalduko dute. Ludoteka horietan 4 jolas-gune edukiko dituzte txiki-ek: mugitzeko jokoaren gunea, olgeta sinbolikoena edo antzeztekoena, eraikitze jokoena eta puzzlea, eta azkenik, mahai-jokoaren txokoa. <sup>m</sup>

Zure publikitatearen  
Zure publikitatearen  
Zure publikitatearen  
Zure publikitatearen

94 491 13 37

**Elena Estankona eta Aitor Uriarte** > antolatzaileetako bi

“Zure mintzaldia/ turno de palabra lehiaketan heritarrek gure heriaz idaztea nahi dugu”



Elena Estankona eta Aitor Uriarte

**Getxoko hiru kultur taldek literatura lehiaketa antolatu dute eta hilaren 25a izango da bertan parte hartzeko azkenenengo eguna. Antolatzaileetako AKT (Areeta Kultur Taldea) taldeko kide Elena Estankonagaz egon gara lehiaketaren nondik norakoen berri jasotzeko.**

—Zelan jaio zen ideia?

—Getxoko batzokietako kultur taldeak gara antolatzaileak: Zustraiak taldea, Itxartu taldea eta AKT. Hasiera batean kultur taldeak ezagutarazteko zerbait antolatu nahi genuen, eta literatura lehiaketa antolatzea ideia polita iruditu zitzaigun. Izena emateko epea irailaren 11n zabaldu genuen eta hil honetako 25ean itxiko dugu. Egia esan momentuz ez du jende askok izena eman, horren arrazoia izan daiteke askotan gauzak azken ordurako uzten ditugula... Horregatik amaierara heldu ahala partaideen kopuruak gora egingo duela espero dugu. Gero, jendea hitza eman nahi genion gure heriaz hitz egin zezaten.

—Zelan eta nork har dezake parte?

—Lanak bi modutara bidal daitezke, alde

batetik mezu elektronikoko bitartez zure-mintzaldia@gmail.com helbidera; eta bestetik, postaz Bidebarrieta 4, Areeta (48.930) helbidera. Mezu elektronikoz zein postaz bidalitako lanek ezizenagaz sinatuta joan behar dute; postaz bidaliz gero bi gutun bidali beharko dira eta bigarrenaren egilearen datuak. Sarean ere badaukagu webgune bat [www.zuremintzaldia.com](http://www.zuremintzaldia.com), hor nahi duenak lehiaketaren inguruko informazioa aurki dezake. Laburtuz oinarriak ondorengoak dira: lehenago ere esan dut gaia gure herria dela, Getxo, eta herritarrek heriaz duten sentimenduak azaltzea, eta ahots desberdinen bitartez gure herria zer den erakustea zen gure asmoa. Lan onenak argitaratzea da gure helburua, horixe da garrantzitsua, lau irabazleen lanak argitaratu egingo ditugula. Lehiaketa librea izatea nahi genuen, hau da,

### «Gazteei begirako lehiaketa da, 12 eta 24 urte bitartekoentzat»

literatura oso modu orokorrean ulertuta; ipuinak, poesiak, saiakerak... izan daitezke lanak. Jende gazteari begirako lehiaketa da eta euskaraz zein gaztekeraz aurkez daitezke lanak. Lau taldetan banatuta dago eta talde bakoitzeko lan onenak 150 euro, liburu sorta bat eta lana argitaratzea izango dira jasoko dituen sariak. Hala, A taldea 12-17 urte bitarteko euskarazko lanek osatuko dute, B taldea 18-24 urte bitarteko euskarazko lanek, A-1 taldea 12-17 urte bitarteko gaztekerazko lanek eta B-1 taldea 18-24 urte bitarteko gaztekerazko lanek. Lanek gehien 3 orrialdeko luzera edukiko dute eta Arial 12 letra motaz idatzita egon beharko dute. Irabazleen izenak abenduaren 22-23 inguruan jakinaraziko ditugu. Amaitzeko, jendea parte hartzerantz animatu nahiko nuke, anima zaitezte, badakigulako Getxon literatura indartsua dagoela eta gure asmoa hurrengo urtetan ere lehiaketari jarraipena ematea da-eta. <sup>m</sup>

## Euskararen altzoan bizitzeko VIII. Euskal Kulturaren Jardunaldien egitarauak hamaika ekitaldi iragarri ditu



Osagarritasun ezaugarria dute Jardunaldiak, Udalak eta herriko elkarteek prestatutako ekimenez osatu dituzte

**Egunero** beharko balu ere, getxoztarrek azaroren 20tik abenduaren 3ra edukiko dute aukera saihestezina. Belarriak, begiak, hankak, sabela zein ahozerua, adimena... asebetetzeko topaldi itzela dira urtero Euskararen Jardunaldiak; aurten aurpegi desberdinagaz aurkeztu baditu ere, Euskal Kulturaren Jardunaldiak izena ipini diote-eta, barrukoa helburu berdinagaz egituratu du Udaleko Euskara Zerbitzuak.

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatzen da aspalditik eta horren arrazoia Jardunaldion antolatzaileek azaldu legez hurrengo da: “Lehenengo aldiz 1949an ospatu zen Ipar Euskal Herrian, Parisen, Mexikon, New Yorken... 1995ean Uruguaiako euskaldunek egun handituz zutena Euskararen egun

ofizial izendatzeko eskaera egin zuten eta Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak ontzat eman...”. Getxoko Udalak ere egun horren inguruan ekitaldiak antolatzen 8 urte daroaz dagoeneko; hasieran egun bakarrean egiten ziren ospakizunak, gero aste osoan zehar, eta gaur egun ia hamabostaldia osatzen dute ekitaldiek. Alabaina, Euskara teknikari Joxi Arakamak dioten legez, “helburua ez da euskara hamabostaldi batera mugatzea, urtean zehar ere antolatzen dira ikuskizunak, asmoa euskal kulturak urtean eman duena Getxora burbiltzea da”. Azkenik “Hartzaiak guztiei” begirako egitaraua prestatu dutela adierazi du Arakamak eta aurrekontua 50.000 euroko izan dela. <sup>m</sup> Egitarau osoa aldizkariagaz banatzen den eskuorrian

## GETXOKO V. KOMIKI AZOKA AREETAN DATORREN HIL HASIERAN

Abenduaren 1etik 3ra bitartean, V. Komiki Azoka ospatuko da Areetako Geltokia plazako karpa erraldoian. 70 saltokitik gora, argitaletxeen aurkezpenak, lehiaketak eta askoz ere gauza gehiago bilduko dira lau gunen ezberdinetan banatuta egongo den esparruan: merkataritza gunea, erakusketa aretoa, lantegientzako lekua eta areto nagusia. Salvador Larroca valentziarra izango da aurtengo gonbidatu berezia. Honek bere azkenengo lana aurkeztuko digu: *Newuniversal*, super heroien genero tradizionalari buelta eman nahi dion saila, hain zuzen. Oso ibilbide aberatsa dauka Larroca eta “La Patrulla X” eta “Los 4 fantásticos” sail ospetsuetan parte hartu du, besteak beste. Goizetan, 11:00etatik 14:30ak arte, eta arratsaldetan, 5:00etatik 9:00ak arte izango dugu azoka bisitatzeko aukera 2 euroren truke. Hala ere, azarotik jada, komikiaren munduaz gozatzeko aukera izango dugu, Algorta eta Erromoko kultur etxetan jarriko diren erakusketetan.

## IX. GETXOTIK MUNDURA EKIMENAREN BARRUAN BI ERAKUSKETA IKUSGAI

Getxotik Mundura, Mundutik Getxora, garapenerako lankidetzaren altzoan egiten den ekimenaren barruan erakusketa bana paratuko dute Villamonteko kultur etxean (Algorta) eta Erromoko kultur etxean. Erakusketok hilaren 20tik 25era egongo dira ikusgai bi aretoetan, halere, kultur etxe bakoitzak bere ordutegia dauka: Villamontekoan asteleheneetik zapatara goizez 10:00etatik 13:00era ikusi ahalko da erakusketa eta arratsaldez asteleheneetik barikura 6:00etatik 9:30era; Erromokoa, ostera, asteleheneetik barikura 11:00-13:00 eta 18:00-21:00 eta zapatuetan 11:30-13:00 egongo da zabalik. Amaitzeko, Getxotik Mundura ekitaldiaren barruan Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Arloak osatutako DVDa ere aurkeztuko dute, besteak beste.



**Basurto**

Algorta S.L.

altzariak

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



Jose Ignacio Azkueta > S.D. Leioako entrenatzaile ohia

## “Futbola maite dudalako eta Leioak klub bat izatea gura nuelako hasi nintzen SD Leioan”

30 urte eman ditu Jose Ignacio Azkuetak SD Leioa kirol elkartearen beharren eta joan den urriaren 31n, herriaren 480 urteurrenako ospakizunak aprobetxatuz, kirolaren alde egindako lanagatik saritu gura izan zuen Leioako Udalak. Gaztetan lagunakaz jokatzegaz konformatu behar izaten zuen bere burua leioaztar peto-petotzat daukan futbolzale amorratuak, bere esanetan, gaur egun gazteek dituzten “aukerak” herrian ez zeuzkatelako.



Argazkian, Jose Ignacio Azkueta

—Zeintzuk izan ziren SD Leioaren has-tapenak?

—1925. urtean sortu zuten, 60. hamarkada aldera desagertu zen eta 1974an berriro ateratu genuen. Esaten dutenez, hastapenetan, futbolaz gain, arrauna eta txirindularitza ere egiten ei zuten elkartearen. Herriko elkarte guztiak batuta zeuden, baina gerra amaitu zenean ezin izan zuten kirol elkarte moduan jarraitu eta izena futbol klubagatik aldatu behar izan zuten. Gu sartu ginenean, ordea, kirol elkarte bihurtu genuen atzera.

—Zelan hasi zinen honetan?

—1974an hasi nintzen, futbola maite dudalako eta Leioak klub bat izatea gura

nuelako. Hasieran, arazo ugari eduki genituen jokatzeko zelairik ez geneukan eta. Garai hartan Zugaztietara joan behar izaten genuen etxeko partidak jokatzera, inguruko taldeek ez zigutelako euren zelaia erabiltzeko baimenik ematen. Lezaman, Unibertsitatean eta Askartzan ere jokatu izan dugu, 1988an Sarrienako zelaia inauguratu zuten arte. Pentsa gauzak zelan

aldatu diren, elkartearen sartu nintzenen gazte mailako talde bat besterik ez zegoen eta gaur egun erregionaleko bigarren maila eta ohorezko mailan taldeak dauzkagu.

—Urte hauetan SD Leioak izugarri hobetu du.

—Bai, batez ere kirol mailari dagokionez. 1974an, kirol plana ez zegoen orain beste garaturik. Hasieran, futbola gogoko zutenak etortzen ziren eta listo! Gaur egun,

### «1974an ez geneukan ezta jokatzeko zelairik ere»

zazpi urtegaraz sartzen dira eta futbolearen hezten ditugu, eta orotara 320 gaztek osatzen dute kluba.

—Suposatzen dut gogorra dela zuzendaritzan jardutea.

—Gogorra da, bai. Presidentea nintzenen lanetik irten eta agian goizaldeko laurak arte egon behar nuen jokalarien fitxak osatzen. Baina bizi dudana... Gogoko lekuan aldatsarik ez! 17 urte presidente izan nintzen eta 11 urte beteko ditut idazkari. Oraindik gauza asko ditut egiteko!

—Momentu onak eta txarrak edukiko zenituen hainbeste urteren buruan...

—Onak asko, txarrak ez dira ezta gogortu behar! m

## Argazki lehiaketa

### 20 urte beteko ditu aurten

Leioako Kultura Sailak antolatutako txapelketak



Leioako Saioa Marquez Ormazaren lan hau saritu zuten iaz

**Leioako** Kultura Sailak argazki lehiaketa antolatu du 20. urtez jarraian eta, azaroaren 27tik abenduaren 30era, epaimahaiak erabakitako argazki onenak erakusketa bat egingo du Kultur Leioako bosgarren solairuan (asteleheneetik barikura, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00). Horrez gain, liburu bat argitaratuko du irabazleen erretratuak biltzeko.

Hortaz, Bizkaiko lehiaketa zaharretako da Leioakoa eta Estatuan zein atzerrian hedapen ikaragarria eduki du urte hauetan guztietan; izan ere, Euskal Herriko txoko guztietatik parte hartzeaz gain, Herrialde Katalanetatik, Andaluziatik, Argentinatik, Italiatik... ere bidaltzen dituzte irudiak.

Lanak entregatzeko epea agortu da dardorduko, baina ez dugu abenduaren 15era arte irabazlea nor den jakingo. Aurtengo edizioan, gainera, berrikuntza bat egongo da sariei dagokionez, montaje onenak ere garakurra jasoko du-eta.

Hainbat dira aurkeztutako argazkiek jorratzen dituzten gaiak: naturaren inguruko argazkiak, bizitzaren errealitatea islatzen dutenak, egoera bitxiak...

Iaz, Berangoko Javier Pedro Fernandez Ferreras izan zen koloretako argazkietako saillean garaile, *Arrain lehortegia* lanagaz. Aurkeztutako herriko lanik onena, berriz, Saioa Marquez Ormazaren *Esekitokia I* erretratu izan zen. m

## ROCK ETA POESIA EMANALDIAK

Rock kantua askotan poesia ezkutatzeko delakusita, diziplina biak uztartzen dituzten artisten emanaldiak antolatu ditu Kultur Leioak. Kontzertuak Auditoriumean izango dira, 20:00etan, eta bertan egongo dira, besteak beste, Antonio Vega eta Niko Etxart (azaroak 23), Josele Santiago eta Gari (azaroak 30). Kontzertuak batera, mahai-inguruak ere egingo dituzte. Horietan, rockagaz zerikusia daukaten hainbat idazle, kazetari, marrazkilarik, zinemagilek... hartuko dute parte. Sarrera 10 eurokoa da.

## EUSKARA ETA GAZTERIA HIZPIDE KULTUR LEIOAN

Joan den azaroaren 7an eta 8an *Gaztea izan eta euskara ahoan* jardunaldiak antolatu zituzten, besteak beste, Leioa, Getxo eta Berangoko udaldirak; Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak eta Udako Euskal Unibertsitateak. Hitzaldien helburua nagusia euskara gazteen artean sustatzeko teknika, estrategia eta metodologiaren abiapuntua eskaintzea izan zen. Gainera, Kataluniako Generalitateko hizkuntz politikak ere aztertzei aukera izan zuten Leioara hurbildutakoek.



# Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Elkartea



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa  
Tel: 94 633 81 59

udondo  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

Aiora Sedano > Plataforma Tiranteko kidea

“Aktoreek askotan **oinarrizko errenta** eskatu behar dute bizi ahal izateko”

**Barakaldoko Antzerki Eskolan ikasitakoak dira Plataforma Tiranteko kide gehienak. Euren proiektuak burutzeko leku eta aukera aproposa behar zutela ikusita, Lutxanako Eskoletan operazio zentroa jartzea erabaki zuten orain dela urte bat baino gehiago. Gutxinaka-gutxinaka hasi dira gazteak antzerki munduan kontaktuak egiten, baita egindako lan gogorraren emaitzak ikusten ere. Aiora Sedano taldeko aktoreagaz egon gara.**



Aiora Sedano taldeko beste kide batekin

—Antzerkiak bizitzea ez al da gatxa?  
—Gu honetaz bizi gara, baina gatxa da. Aroka doan zerbait dela esan dezakegu, bartzuetan ondo doakizu eta besteetan txarto. Normalean, aktoreek laguntzak eskatzen dituzte, oinarrizko errenta esaterako.  
—Zenbat pertsonak osatzen duzue taldea?  
—Gaur egun bederatzi pertsona gara. Bilerak egiten ditugu eta etorri gura duenak egin dezake. Oraingoz jende ezagunaz osatutako taldea da. Kanpoko jendea ez da etortzen, aukerarik ez daukatelako, ezagutzen ez gaituztelako baizik.  
—Zertan diharduzue orain?  
—Hainbat proiektu dauzkagu martxan. 15 minutuko dantza proiektu bategaz gabiltza, guk sortu dugu koreografia eta dena. Iazko

Azaro Kulturalean antzeztu genuen, baita Barakaldoko eskolak antolatutako Act jaialdian ere. Horrez gain, *Me gusta tu vestido* pieza ere eskaintzen ari gara momentu honetan eta *1+1=1* lana entsatzen gabiltza.  
—Azaro Kulturalean antolatu duzue Keli taldeagaz.  
—Joan den urtean hasi ginen taldeko kide batzuk muturra sartzen interesagarria iruditu zitzaigulako. Aurten, berriz, laguntzea erabaki dugu. Jendea ezagutzen duzu, kontaktu

interesgarriak egin... Ekintza guztiak doan dira eta orduan ezin dezakegu diru askorik eskaini, Udalak emondako diru-laguntzakaz oradaintzen dugu-eta. Horrek mugatzen zaitu. Hala ere, programa majoa osatu dugu.  
—Zein da antzerkiaren egoera Euskal Herrian?

«**Edozein lanetan bezala, gustura egotea da garrantzitsuen**»

—Mugimendua badagoela uste dut, baina betikoa gertatzen da: talde asko daudela baina azkenean betiko talde handiek hartzen dutela lan guztia! Hala ere, hemendik kanpo bagabiltza talde horiekaz. Nik, esaterako, Kukubiltxogaz lan egin nuen eta orain Glu-Glugaz nabil. Hori ere ikasteko beste era bat da eta ahal duzun guztia xurgatzen saiatzen zara, gerora Plataforma Tiranten aplikatzeko. Gure artean egiten duguna zeharo ezberdina da, gatxagoa, baina gure asmoa ez da dirutza egitea. Gure helburua gustatzen zaiguna egitea da eta bide batez diru apur bat irabazi ahal bada, hobeto!  
—Zuen ametsa aktore moduan?  
—Honetaz bizitzea. Nik aktorea izan gura izan dut txikitatik eta orduan nire ametsik handiena Arriaga antzokian behar egitea zen. Ez da famatua izatearen kontua. Edozein lanetan bezala, gustura egotea da garrantzitsuen. m

## Gazte Plana

Herriko **gazteen gurariak asetzeko kanpaina** abian jarri du Udalak



Gazte koadrila jaietan

**Azkenaldi** honetan guztion ahotan dabil Gazte Planaren egitasmoa eta edozein udalerrian ikus daitezke horren inguruko iragarriak. Baina nonork al daki plan hori zertan datzan? Bada, Erandion Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektuaren hirugarren fasean murgilduta daude daborduko.

EAEko gazteen arazoak eta beharriak zeintzuk diren jakin eta horiei aurre egiteko diseinatutako egitasmoa da Gazte Plana eta plangintza horren bigarren edizioa da Erandiokoa.

Esan bezala, Gazte Planaren hirugarren fasean dago Udala, hau da, lortutako emaitzak ikusita zein neurri hartu eraba-

kitzeko unea heldu zaio. Izan ere, aurretik udalerriko azpiegituren diagnosis (gazte-entzako zer dagoen eta zer erabiltzen duten: kiroldegia, liburutegia...) eta herriko gazteakaz zein elkarteakaz mahai inguruak egin dituzte udal ordezkariek. Hemendik aurrera, beraz, fase bi horietan ateratako ondorioei erantzuna emateko ardura izango du Udalak eta gazteen beharriak ahal den neurrian ase.

Oraindik egitasmoan parte hartzeko bestelako bideak daudela jakinarazi dute ekimenaren bultzatzaileek eta ahalik eta gazte gehien Kulturaz Sailera edo Gazte Informazio Bulegora hurrera daitezten animatu. m

### KANPOSANTUKO EHORZKETAK ERREGULATUKO DITUZTE

Udalerriko kanposantu bietako berritze lanak jarraitzen du Erandioko Udalak; aurrerantzean hildakoak lurperatzeko lurra erabili ordez, nitxoak eta hezurtegiak erabili daitezten. San Agustingo hilerrian, esaterako, 318 nitxo eta 129 hezurtegi eraiki dituzte daborduko. Erandio Goikoako Santa Mariakoan, berriz, 300 nitxo eta hezurtegi ipini gura dituzte datorren urterako. 10 urtez esleituko dira hilobiak (hezurtegien kasuan apur bat gehiago) leku bietan. Udalak bere aldetik, kanposantuetan senideren bat lurperatuta daukaten pertsonen telefonoa eskatu die, bere esanetan, gorpuen desehorzketa errazteko.

### PABILIOI BI SALGAI JARRIKO DITU ERANDIOKO UDALAK

Udal pabilioi bi 398.000 euroren truke salgai ipiniko ditu Udalak. 450 metro koadroko azalera daukate eta Areetarantz doan errepideko industriagune batean daude. Hasiera batean, Lan Brigadakoentzat izatea gura zuten Udaleko ordezkariek, baina lekua txikiagia zela ikusita saltzea onartu dute osoko bilkuran. Oraindik erabakitzeke dago salmentagaz ateratako diruaren helburua zein izango den.

### MUSIKARI BURUZKO IRAKURGIDA ARGITARATU DUTE LIBURUTEGIEK

Mozarten heriotzaren 250. urteurrenaren Arriagaren jaiotzaren 200. urteurrenagaz bat egin duela ikusita, musikari buruzko irakurgida kaleratu dute Altxagako eta Astrabuduko liburutegiek. Bertan, musikari lotutako liburuen eta bestelako materialen zerrenda bildu dute; besteak beste, musikaren inguruko entziklopediak, eleberririk eta aldizkariak. Horrez gain, gaiagaz erlazionatutako zenbait webgune aukeratu dituzte.

**A Arasa**  
Sukalde eta Komunitararako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

**Egunkariak prentsa eta aldizkariak**  
nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

**ARLAN**



Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz

## HAINBAT EKINTZA ANTOLATU DITUZTE EUSKARAREN ASTERAKO

Azaroaren 22tik 24ra arte, euskal produktuen ludoteka egingo dute Udaletxeko erakusketa gelan. Azaroaren 30ean, berriz, Ander Deuna Eguna ospatuko dute: kalejira txistulariakaz, hamaiketako eta erromeria. Jaia 11:00etan hasiko da eta autobus zerbitzua jarriko dute baselizara igotzeko. Egun berean, 20:00etan, triki bertso poteoa egingo dute. Abenduaren 1ean, *Larru Haizetara* antzezlan eskainiko du Ez dok Hiru taldeak. Amaitzeko, abenduaren 2an eta 3an, umeei zuzendutako ekintzak antolatuko dituzte: pailazoak, baserriko jolasak...

## SOPELA AUKERATU DUTE UR-KIROL ATLANTIKOEN TXAPELKETARAKO

Ur-kirol Atlantikoen XVI. edizioa (bela, surf, arrauna eta urpeko kirolak) Sopelan eta Getxon egitea erabaki zuen joan den urriaren 29an jokoen nazioarteko batzordeak; besteak beste, Euskal Federazioen Elkarteak euskal selekzioen ofizialtasuna lortzearen alde ekimen hori sustatzeko egindako lanari esker. Hain zuzen ere, Barinatxe, Atxabiribil eta Abra dira txapelketa aurrera emateko hautatutako lekuak.

## OLENTZERORI BURUZKO MARRAZKI LEHIAKETA ANTOLATU DUTE

Gabonetako postaleko irudia aukeratzeko marrazki lehiaketa antolatu dute Sopelan. Gaia "Olentzero Sopelan" izango da eta 8 eta 12 urte bitarteko umeei parte hartu ahal izango dute. Abenduaren 1a arte daukate umeei egindako lana Hall Kulturean entregatzeko. Irudiaren atzeko aldean egileek euren ezizena ipini behar dute eta euren benetako datuak, berriz, gutunazal batean sartu. Aurkeztutako marrazki guztiakaz, gainera, erakusketa bat egingo dute abenduan.

## Txopel Sariak 2006

Heriko bizilagun esanguratsuenak saritu ditu Sopelako Udalak



Irabazleen familia argazkia

**Joan** den azaroaren 9an, Txopel Sariak banatu zituen Sopelako Udalak. Guztira bederati izan ziren saritutako talde edo pertsonak, aurtan, kategoria bakoitzeko garaikur bi banatu dituzte-eta.

Honakoak izan ziren saritutakoak: Jose Luis Bilbao burdindenda eta Euskal Bodyboard Eskola, enpresa onenak izateagatik; Iraupen IGE (Zipiriñe) eta Udal Euskaltegia, Sopela sustatzeagatik; David Bustamante, etorkizuneko surfarien alde egindako lanagatik; Munarri Atletismo Taldeko Ismael Alonso eta Begoña Minayo, Sopedaren izena zabaltzeagatik; eta, azkenik, Raket

Bonaetxearen mosaikoak eta Telleri Nekazal-turismoa, proiektu onenagatik.

### Surf Kazetaritzaren I. Saria

Ekitaldi berean Surf eta Bodyboard Kazetaritzaren I. Saria ere banatu zituzten. Iker Basterretxeak *3esenta* aldizkarian argitaratutako erretratuagatik argazki onenari saria eskuratu zuen. Prentsa kategorian, Alvaro Vicente irten zen garaile eta Zuberoa Andresek, berriz, telebistako lan onenari saria jaso zuen, ETBrentzat egindako *Surf in Euskadi* erreportajeagatik. Irabazleek 1.000 euroko saria eraman zuten etxera. m

Amaia Vega > zine tailerreko arduraduna

"Eztabaida eragiten duten pelikulak ikusi gura ditugu Itzartun"



Amaia Vega oso pozik agertu da tailerrean parte hartzen duen jendeagaz

**Ekintza** kulturalak antolatzen dituen enpresa bateko behargina da Amaia Vega eta emakumeen elkarte askotan lan egiten du, tartean Itzartun. Gaur egun, zine tailerra antolatzeko ardura dauka Sopelako elkartearen; izan ere, zinemagintza eta gidoigintza ikastaroak burutu ditu gazteak. "Iaz hasi ginen tailerragaz eta emakumearen ikuspegitik eginda dauden edo generoaren gaia ikutzen duten pelikulak ikustea da ekintzaren helburua", azaldu du Amaiak.

Eskaintzen diren filmak ez dira gai bakoetara mugatzen eta mota askotakoak dira jorratzen dituzten istorioak. "Eztabaida eragiten duten pelikulak ikusi gura ditugu, emakumearen papera arlo ezberdinetan zein den ikustea. Dramak eta oso dibertigarriak diren filmak ikusi izan ditugu, denetarik".

Pozik dago Amaia martxan dagoen egitasmoagaz; izan ere, jende ugari parte hartzen du eta aretoa bete-beteta egoten da eguenero. "Batzen garenok ez ditugu irudia edo fotografia aztertzen, ez dugu alderdi teknikoetan sakontzen. Pelikula ikustera, kafea

hartzera eta zintan ikusitakoaz berba egitera etortzen dira andrak", azpimarratu du gazteak eta hasiera batean emakumei parte hartzea kostatzen zitzaizela aitortu. "Baina daborduko ez dira isilik genetzen, ezta lotsatzen ere. Gauza ez da filma ikustea eta listo. Hausnarketa lana egin behar da, jendeak bere iritzia eman dezan. Ni oso pozik nago taldeagaz, kolore askotako pertsonak hurbiltzen dituzte". 55etik 60ra bitarteko emakumeek osatzen dute publikoa.

### «Pelikula ikustera, kafea hartzera eta berba egitera etortzen dira andrak»

Parte hartu gura duenak, beraz, eguenean aukera paregabea dauka Itzarturen lokalera, 17:30ean. "Beti ere, pelikula modernoen eskaintzen saiatzen gara, bai komertzialak zein zinema independentekoak. Aurtan, esate baterako, *Agua*, *Las mujeres de verdad tienen curvas*, *Piedras*, *El círculo*, *Libertarias*, *Kandahar* eta *Volver* filmak izango ditugu ikusgai". m

## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urteik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldia

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
didakhilton@euskalnet.net

## 4 bide pinturak



RIPOLIN  
BONDÉX  
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK  
Taberna

Zatoz  
gure tabernara!

Bentatxu, 2  
48600 Sopela

**“EUSKADI EUROPAREKIN AURRERA” ERAKUSKETA**

Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Udalen Elkartearen (EUDEL) eskutik, “Euskadi Europarekin aurrera” erakusketa ikusgai egongo da azaroaren 27tik abenduaren 3arte Berangoko kultur etxean. Honetan, Euskadi 1986an Europar Batasunean sartu zenetik bizitako aurrerapenen berri ematen zaigu. Panelen bidez eta oso era didaktikoan, 20 gai ezberdin lantzen dira, euskadik Europan eman dituen 20 urteak zelabait laburbilduz. EBren sorreraren zergatiak eta garapena ere azaltzen zaigu. Jaurlaritzak “D” Plan europarrari (Demokrazia, Elkarriketa eta Eztabaida) egindako ekarpena da erakusketa.

**LUDOTEKAK ATEAK ZABALDU DITU AURTEN**

Berangoeta kultur etxeko ludotekak atek zabalduta aurten ere. Astelehenerdik ostiralera ekintza ezberdinetan parte hartu ahal izango dute 3 eta 12 urte bitarteko umeei. Adin tarte bakoitzak ordutegi berezia edukiko du: 16:00etatik-17:30era 3-6 urte bitartekoentzat; 17:30etik-19:00etara 7-9 urtekoentzat; 19:00etatik-20:00etara 10-12 urtekoentzat. Kirol ekintzak, mahai jokoak jolas dinamikoak eta tailerrak izango dira besteen artean.

**ZINE TAILERRA ZAPATURO GAZTELEKUN**

Aktore, zinemagile edota gidoigile izateko aukera aparta eskainiko du Berangoko Gaztelekuk azaroan eta abenduan. Zapaturu zine tailerrean parte hartu ahal izango dute 13 eta 18 urte bitarteko gazteek arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Parte hartzaile guztien artean, film bat grabatuko da Berangon. Azaroaren 4an hasi eta abenduaren 16a arte luzatuko da tailerra. Prezioa 2 eurokoa izango da (3 herrian errolatuta ez daudenentzat).

**Kortiñe eskola libre**

Gidaritzapen bako elkarbizitzarako gunea



Kortziñe eskolako haurren gela

**Duela bost urte** lagun talde batek sortu zuen proiektuaren emaitza da Berangoko Kortziñe eskola libre. Gaur egun, zazpi familiek hartzen dute parte honetan eta, dena ondo joanez gero, datorren ikasturtean atek zabalduko dituzte. Haurren benetako beharrak asetzeko eta garapen prozesua errespetatzea premisatzen hartuta, heziketa ikuspuntu desberdin batetatik lantzen dute. Azterketak eta curriculum ofiziala alde batera utzi eta modu autogestionatuan lan egiten dute proiektuko 20 partaideek.

Argi daukate zein den euren heziketaren ideia: “Gisa honetako heziketa guneetan ez da ezer inakasten, inakaskuntza prozesua norba-

nakoak dituen bizipenetan oinarritzen da, eta elkarbizitzan ematen da”. Gurasoek paper garrantzitsua betetzen dute heziketa proiektu honetan: “Kortziñe haurra eskolatzeak ez du esan nahi soilik haurra ondu finko batzuetara ekartzea eta handik ordu batzuetara jasotzea. Kortziñe bere zentzua galduko luke familiaren konpromisorik ez balego”. Horregatik, gurasoek, matrikula betetzearekin batera, konpromiso jakin batzuk onartu beharko dituzte. Proiektua ausarta da, baina beste herri batzuetan, arrakasta handia izan dute antzerako heziketa guneek. m

Harremanetarako: korti123@yahoo.es  
Diru laguntzak: 30350246432460007241

Nerea Iburgurengoitia > Plentzia Telebistako arduraduna

“Herriarentzat **komunikazio erreminta** izan gura du Plentzia Telebistak”



Edurne San Pelayo eta Nerea Iburgurengoitia

**Jadanik** abian da Plentzian telebista martxan jartzeko proiektua. Egitasmoa berria ez bada ere (orain dela 25 urte Plentzia Telebista Kultur Elkartea sortu zuen herriko bizilagun talde batek), aurrean jaso du Udalaren babesa. “Elkarrekin 25 urte beteko ditu 2007an, baina ez du inoiz modu jarraian lan egin: garai batzuetan jendea egon da eta besteetan ez, hemen lan egin dugunok boluntarioak izan gara eta”, nabarmendu du Nerea Iburgurengoitia telebistako arduradunak.

Kazetaria da Nerea eta Edurne San Pelayo soinu-irudiko ingeniariagaz batera proiektua aurrera eramateko erantzukizuna dauka. “Udalak, bere aldetik, hiru arlotan ipini beharko du dirua: teknologian (kamenak, platoa, edizio mahaiak...); urte hauetan guztietan grabaturiko irudiak berreskuratzeko artxiboa, nahiko kalteturik daudelako eta, azkenik, pertsona bi gehiago kontratatzea”.

Oraingoz prestakuntza lanetan dabilta eta harremanak egin dituzte eskualdeko elkarte eta komunikabideakaz. “Guk herria

ezagutzea eta herriak gu ezagutzea da, azken finean, egiten ari garen batzarren helburua”. Horrez gain, bizilagunek zelako edukiak gura dituzten jakiteko inkesta bat burutuko dute.

Pentsatuta daukaten programazioa, berriz, nahiko xumea da. “Herriarentzat komunikazio erreminta izatea da telebistaren helburua eta horren araberu osatuko dugu programazioa”, azpimarratu du kazetariak. Egu-

**«Plentzia Telebista Kultur Elkarrekin 25 urte beteko ditu 2007an»**

nean, ordu biko programazioa eskainiko dute Plentzia Telebistakoek: egun bi kirolentzat (herriko taldeak), beste egun batean aurreko urteetan grabatutakoak eskainiko dituzte eta beste bi ekoizpen propiorako (erreportajeak, lan eskaintzak, eguraldia, agenda...) erabiliko dute. “Lan neketsua da telebista abian jartzearena. Pertsona bi bakarrik gara eta lagunduko gaituzten boluntarioak behar ditugu”. m



**TXIBERRI edantokia frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15



**Ajuria taberna**

Andrés Cortina 2  
**ALGORTA**



**VIEJO**

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
**ALGORTA**

**cianoplan Reprografía**  
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Ariguo Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopiak
- Karteak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak
- ermarkaketak



## KULTUR ESKAINTZA ZABALA BARRIKAN

Kultur eskaintza zabala izango da azaroan eta abenduan Barrikan. Hilaren 25ean, *Emakumearen Bortxakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna* dela eta, Virginia Imazen "La Recordadora" kontaketaren ikuskizuna izango dugu 12:30ean. Azaroaren 30ean, *Ander Deuna Eguna* ospatuko da Goierri auzoan. Abenduaren 2an, Euskararen Eguna aitzakiatzat hartuta, Eriz Magoa, globoflexia eta haurrentzako tailerrak izango dira 11etan hasita. Egun berean, abesbatzen emanaldia izango da arratsaldeko 7:00etan Andra Mari elizan. Azken hau izan ezik, udaletxean izango dira ekintza guztiak. Agenda kulturalaz gain, Barrikan kultur guneak (BKZ), umeentzako tailerrak, KZgunea eta liburutegi zerbitzua eskaintzen jarraituko du ikasturte honetan.

## HOBEKUNTZA AIPAGARRIAK HONDAKIN-UREN ARAZTEGIAN

Bizkaiko Foru Aldundiak, Gorlizko araztegiaren hobekuntza lanak bukatu ditu. Egindako aldaketei esker, Barrika, Gorliz eta Plentziako urak arazketa maila altuagoarekin itsasoratuko dira. Orain arte zegoen trataera fisiko-kimikoari, trataera biologikoa gehitu zaio, eta horretarako, 6 milioi euroko inbertsioa behar izan da. losu Madariaga Ingurugiro sailburuak hobekuntza lanen garrantzia azpimarratu du, eskualdeko hondartzetako uren kalitatea asko hobetuko dutelako.

## LEMOIZ

### Udal ikastaro arrakastatsuak



%50 igo dira matrikulazioak aurten

**Oso pozik** agertu dira Lemoizko Kultur etxe-kideak. Izan ere, arrakasta itzela izan zuten 2005/06 ikasturtean herritarrentzat eskainitako ikastaroek eta, horren ondorioz, %50 igo dira matrikulazioak aurten. Gorakada, azken urteotako nabarmenena izan da. Aerobik-

Gim, euskara, pintura eta eskulan tailerrak eskaintzen dituzte besteak beste.

Umeentzako arte tailerra izan da matrikulazio igoera handiena jasan duena, 13 ikasletik 25 ikasle izatera pasatu delarik. Ikastaro honekin hiru urtetik aurrerako umeen irudimena garatzea bilatzen da. Nagusientzako aerobikak ere arrakasta handia izan zuen, aurten 20 ikasletik gora parte hartuko dute eta. Gainera, tradizioz gizonekoak soilik parte hartzen zuten ekintzetan, emakumeak parte hartzen hasi dira; esku pilotan, adibidez, sei dira emakumezkoak aurten.

Pedro Botejara alkateak igoera "atsegina" dela esan du, "izan ere, ikastaroak herritarrentzat eta herritarrentzat diseinatuak daude". Herrian errolatuta daudenentzat, %50eko beherapena izango da ikastaro guztietan. Antolatzaileen ustez, igoera "partehartzaileek oso gustura egon direlako" gertatu da, "hauek euren lagunei komentatu eta apuntatzera animatu dituzte". Bestalde, azken urteetan gertatutako biztanleriaren igoerak zerikusia izan dezake ere, gazte eta ume asko etorri dira-eta herrira. m

# Aza. 19 - abe. 1

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GETXO

► **Getxotik mundura.** Algortako eta Erromoko erakusta aretoak. Azaroaren 25era arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.  
► **Komiki erakusketa.** Algortako eta Erromoko erakusta aretoak. Azaroaren 27tik abenduaren 16ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.

### LEIOA

► **Biar kolektiboa.** Kultur Leioa. Azaroaren 26ra arte. 10:00-20:00.  
► **Mozart eta musikaren mundua.** Ambigu. Azaroaren 26ra arte. 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.  
► **XX. Argazki Lehiaketa.** Kultur Leioa. Azaroaren 27tik abenduaren 30era. 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Cantervilleko mamua.** Umeentzako antzerkia. Getxo Antzokia. Azaroak 25, zapatua. Sarrera: 2 euro.  
► **Greban gaude.** Lakrikun. Algortako The Piper's Irish Pub. Azaroak 29, eguaztena. 20:00. Sarrera dohainik.

### LEIOA

► **Zirko iluna.** Umeentzako antzerkia. Auditorium. Azaroak 19, domeka. 12:00. Sarrera: 4 euro.

### LUTXANA

► **La mujer cuerda.** OhMyGod.Lutxanako Eskolak. Azaroak 19, domeka. 20:00. Sarrera dohainik.  
► **Metida en harina.** Iresisstans. Lutxanako Eskolak. Azaroak 24, barikua. 22:00. Sarrera dohainik.

### ERANDIO

► **Extras, Stones in his pockets.**



► Getxo

### Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Azaroaren 26an, Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalurrekoa egingo dute Algortan. Finalerako txartela eskuratzeko lehiaren egongo dira Fredi Paia, Iratxe Ibarra, Oihane Enbeita, Iñaki Iturrioz, Joseba Goienola eta Onintza Enbeita bertsolariak. Hala ere, Bizkaiko Bertsolari Elkartetik ezin izan dute zehaztu norgehiagoka non izango den; izan ere, Getxo Antzokia txiki geratu da eta beste leku baten bila dabilta antolatzaileak. Fadurako kiroldegia da aukeretakoa bat, baina oraindik ez dute ezer zehaztu gura izan. Ekitaldiaren ordua, ordea, zehaztuta dago daborduko: 17:30. Sarrerak eskuratu gura duenak elkarteko webgunera jotzea besterik ez dauka: [www.berzozale.com](http://www.berzozale.com)

• **Non:** Algorta • **Noiz:** azaroak 26 • **Ordua:** 17:30

Josu Murueta kultur etxea. Azaroak 26, domeka. 19:00. Gonbidapena behar da.  
► **Bertso tranpak.** Alzagako azoka. Azaroak 30, eguena. 19:30. Gonbidapena behar da.

## ZINEMA

### GETXO

► **Perder es cuestión de método.** Getxo Antzokia. Azaroak 22, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.  
► **A las cinco de la tarde.**

Jatorrizko bertsioa. Getxo Antzokia. Azaroak 24, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.  
► **Zinebi zinemaldiaren atala.** Getxo antzokia. Azaroak 28, martitzena. 19:30. Sarrera dohainik.

### LEIOA

► **De latir mi corazón se ha parado.** Auditorium. Azaroak 21, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.  
► **La vida soñada de los ángeles.** Auditorium. Azaroak 28, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

## BESTEAK

### GETXO. Euskal Kultur Jardunaldiak

► **Poema eta testu musikatuak.** Algortako The Piper's Irish Pub. Azaroak 23, eguena. 19:30. Sarrera dohainik.  
► **Kontzertua: Euskal Herriko Kanturik Onena.** Getxo Antzokia. Azaroak 24, barikua. 19:30. Sarrera: 3 euro.  
► **Emetik Bertso Kabareta.** Onintza Enbeita, Iratxe Ibarra eta Oihane Perea. Algortako The Piper's Irish Pub. Azaroak 28, martitzena. Sarrera dohainik.

### LEIOA

► **Rock eta poesia: Antonio Vega & Niko Etxart.** Auditorium. Azaroak 23, eguena. 20:00. Sarrera: 10 euro.  
► **Rock eta poesia: Josele Santiago.** Auditorium. Azaroak 30, eguena. 20:00. Sarrera: 10 euro.

### BERANGO

► **Itsas Museora txangoa.** Metro geltokia. Azaroak 25, zapatua. Prezioa: 2/3 euro.

### LUTXANA

► **Kontzertua: Brama!** Soul, Jazz, Blues. Lutxanako Eskolak. Azaroak 25, zapatua. 23:00. Sarrera dohainik.

### PLENTZIA

► **Bigarren Eskuko Mendiko Materialaren Azoka.** Goñi Portal. Abenduaren 1etik 15era arte.

### BARRIKA

► **Euskararen Eguna.** Eriz magoa, globoflexia, umeentzako tailerrak... Abenduak 2, zapatua. 11:00.

### ERANDIO

► **Kontzertua: Orquesta de Cambra de L'Emporda (Katalunia).** Kamara kontzertua. Josu Murueta kultur etxea. Azaroak 23, eguena. 20:00.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51


Faxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



## ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



GARAIGORTA FAMILIA, 1880  
Iturria: www.tol-mages.com

## Bidaia globoz

Urrutira joatea baino, beharrezkoagoa da irudimena bidaiatzeko. Gure birramamek, birraitxitek, amamek zein aitxitek horixe pentsatzen zutela ematen du, behintzat, euren argazkiak ikustean.

Garai haietan hain modan zeuden hondo eta apaingarri exotikodun erretratuen adibide sano ona da Garaigorta familiari 1890ean ateratakoa. Haiek bazekiten globoz bidaiatzen aieratu barik!

[albuma]



# Getxoko udaltzainak

Zein dotore jantzita joaten ziren “munipak” 1966. urtean. Orduan oso modernoak ziren motor ditziratsukaz -irradi eta guzti- harro agertzen dira kamera eta diktadura garaiko agintarien aurrean. Euskal Herrian baliabide hain garestiak zituen aguazil askorik ez zen egongo...

Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegia**



[berbetan]

Elkarrizketatuaren izena idazteko erabiltzen ditugun letren tamainua sano txikertzeraz behartu gaitu Pedro Garcia Larraganek, beraren nortasuna bigarren abizen barik ulertzerik ez dagoen heinean. Amari omenaldia, argitu digunez. Munduan dagoen ehunka (mila-ka) Pedro Garciengandik bereizi beharrak ere zeozer lagundu du Larragantasuna aldarrikatze horretan, baina ez ama baten indarragaz noski. 40 urte dauka bilbotar jaiotako Garcia Larraganek, eta azken 25ak Getxon egin ditu. Euskara, berriz, Markinakoa darabil, andrearengandik jasoa nonbait. Ez da dote txarra. Ahotik darion pirmerako euskara, hala ere, bizitza pribaturako dauka, beharrezan erderaz jardun du-eta, orain hamarkada bi inguru kazetaritzan hasi zenetik. Correon ibili zen lehenengo, baina laster utzi zuen luma, haren ordezkari mikrofonoa besarkatzeko: 15 urte daroaz Radio Euskadiko albistegietan. Uhinenganako fidelitasuna ez da erabatekoa izan ordea, pare bat urtez ETBko albistegietako aurkezle ibili zen eta. Ezin izan ditugu konparazioak saihestu.

# Pedro Garcia Larragan

## Euskaldun bat Radio Euskadin

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Euskaldun petoa izan eta Radio Euskadin behar egin. Euskaldunak alperrik desaprobatzeko moduan dago EITB ala?

—EITBk ez dio arreta handirik emoten euskarari, uste dut politika txarra dela.

—Atal honetan ez dugu elkarrizketuaren esaldiak titular bihurtzeko ohiturarik, baina egingo bagenu horixe izango litzateke...

—Bai. Niri ez dit ardura esateak. Uste dut leialtasun osoz esaten dudala -nahiz eta batzuek holan ulertu ez- Radio Euskadin ez dugula euskara nahiko sartzin, eta ahal izango genuke.

—Radio Euskadin, dinozu...

—Radio Euskadin bai. Gero, Euskadi Irratian egiten den politika ona da, baina ETBn, nire ustez, kristoren suntsipena izan da euskararako.

—Zergatik?

—Pentsatzen dut badagoela, barruan,

horretaz kargutu den jendea. Zaila da, baina ez ezinezkoa. Hasiera batean, ETBn esaterako, ikusten genituen programak eta albistegiak beste modu batekoak ziren. Gehiago landu egiten ziren. Uste dut orain ez zaiola hainbeste garrantzirik, dirurik, bitartekorik... emoten. Eta urteten duenak urteten du. Gainera, jende gitxik ikusten du ETB-1.

### “EITBk ez dio arreta handirik emoten euskarari, politika txarra darabil”

Euskaldun gehienek erdaraz entzuten dute irratia, eta ETB-2 ikusten dute.

—Euskara ereduak ba ei dauka zerikusirik. Batua dela eta ez dela, euskalkiak...

—Ez da hainbesterako, ez dut uste horregaz zerikusia daukanik. Uste dut zuzendaritzak, edo dagokionak, ez duela... Ez nuke esango garrantzitsutzat hartzen, baina bai apur bat laga dela.

—Eta zuk, euskaraz behar egiteko gogorik badaukazu?

—Bai, baina ez didate proposatzen. Esan nion Radio Euskadiko zuzendariari, euskara sartu behar genuela bertan, edo behintzat ahalegina egin. Esparru batzuk, minutu batzuk... Gonbidatu euskalduna badaukazu, euskaraz egin galdera batzuk. Baina ez zaie ideia ona iruditzen. Pen-

tsatzen dute Euskadi Irratiagaz lehiatzea dela hori, eta bananduta mantentzen dituzte, larregi bananduta.

—Bananduta, dinozu... Telebistan behintzat, ETB-1en eta ETB-2ren edukiak oso desberdinak dira. Irratian ere jazotzen da holan?

—Euskadi Irratiak kristoren maila dauka. Pentsatzen dut, eta holan esango dut





gainera, Euskadi Irratiak irrati hobe egi- ten duela Radio Euskadik baino.

—Orduan, programazioak ez dira mime- tiokoak...

—Ez, inondik inora. Eskerrak. Eta tele- bistari dagokionez, ETB-1ek ez dauka programaziorik. Gogorra da holan esatea, baina ETB guztiz baztertzeko da. Nik ez dut ikusten. *Gaur egun* bai, pentsatzen dut ETB-2ko albistegiak baino hobe dela. Gainerakoa ez dut ikusten, baina ez nik eta ez inork: ikusentzuleriaren datuak negargarriak dira. Ez da egiten horren alde. Horretarako aurrekontua behar da, eta ez dago.

—Telebista aipatzen gabilta asko, baina nik irratiaz ere egin gura dut berba zu- gaz... Euskadi Irratia eta Radio Euska- diren arteko antzekotasun edo desberdin- tasunak generabilzan...

—Hara, irradian dena dago asmatuta. Ez dago batere berrituta. Hemen Gabilondo egon da 30 urtean lehenengoa izaten, ber- din-berdin egiten urte batetik bestera. Baina beharbada gaien aldetik edo... Bai, diferentziak dagoz, eta nik uste Euskadi Irratia erosoago entzuten da Radio Euskadi baino. Eta nik egiten dudana ere bai, e? Batzuetan oso gauza sendoak egiten ditugu, sendoegiak.

—Sendoegiak?!

—Aspergarriak esan gura dut. Gauza sa- konak esan daitezke, baina beste modu batean, beste doinu batez, beste ikus- puntu batetik. Geure ikuspuntua, azken 6-7 urtean, beti joan da ildo beretik. Politika larregi. Politika polita izan daite- ke: klima-aldaketa, etorriko diren tekno- logiak... Baina politika hutsa...

—Hau da, alderdien kontuak... —Horixe da. Batak besteari ez dakit zer esan diola, besteak ez dakit zer erantzun duela... Hori oso aspergarria da. Askotan hori hartzen dugu ardaztat, eta pentsa- tzen dut okertu egiten garela. Euskadi Irratia ia egunero entzuten dut, eta beste- lako freskotasuna dauka.

—Eta zergatik euskarazko irratiaz

asmatu egin bada, telebistagaz ez?

—Irratiak normalan gastu gitxiago dauka, eta askoz errazagoa da egiteko. Telebistan jende gehiago behar da, eta horrek garesti- tu egiten du proiektua. Etxe honetan dau- kagun madarikazioa dirua da. Eta kalita- tea eta dirua batera doaz. Lan ona ordain- du egin behar da, baina ETB-1 ez da lehentasuna batzuentzat. Lehentasuna da dirua... ez irabaztea, baina bai kontuak orekatuta edukitzea.

### “Irratiak badauka bere esparrua, eta gainera berriak topatzen dabil”

—Askatasunez zagoz berbetan oraintxe. Kazetariok askatasunez berba egiteko modua edukitzen dugu? Betiko gaia da, ezta? Lanbide honetan gabilzan guztiok ordaindu behar ei ditugu peajeak...

—Bai, halaxe da. Batzuetan gehiago bar- ruan kanpoan baino, harrigarria. Barruan kontu handiagoz berba egiten da, horrega- tik zugaz honelako askatasunez berba egin ahal dut. Baina barruan normalean ez dizute galdetzen, besteak beste entzun gu- ra ez dutelako.

—Nik beharraz galdetzen nizun, hau da, ea albistegietan -zure kasuan- askatasu- nez berba egin ahal den...

—Egia esan, ez dut arazorik eduki horre-

### “COPE, Onda Cero, El Mundo... baztertzekoak dira, garbi dinotsut”

tan, eta laugarren urtez nabil arratsaldeko zortzietako albistegia egiten. Gainera, oso emaitza onakaz. Ordu horretan lehenen- goak gara, SER katearen aurretik.

—Eta hori hain garrantzitsua da? —Askatasun apur bat emoten du. —Telebistako audientzia datuak egunero kaleratzen dira. Irratikoak?

—Urtean bitan.

—Ez duzue hain presio handia...

—Ez, eta ez daukagu telebistaren botere-

rik. Eskerrak. Gainera, telebistak ez luke hain botere handia eduki behar.

—Irratia entzuteko ohitura galduz doa?

—Ez dut uste. Irratiak badauka bere espa- rrua, eta gainera orain esparru berriak topatzen dabil. Esaterako, orain asko en- tzuten da, arratsalde batez ere, autoetan. Jende asko bueltatzen da beharretik, eta irratia entzuten du. Irratiaren esparruak, irudi batez azaltzearen, etxeetako ezka- ratzak dira goizean, eta autoak arratsalde-

an. Igarri egiten da hori dela irratiaren *prime timea*.

—Dena dela, irratiko entzule kopuruak telebistako ikusle kopuruagaz konparatu ahal dira?

—Bai. Hemen, SER eta gurea batuta -ze hemen, Euskadin, bakarrik bi horiek dagoz, eta Euskadi Irratia neurri txikiago- an...

—... eta besteak? Batzuek beren herrial- dean edukiko dute indarra, besterik ez bada ere...

—Ez, ez daukate. SERek, gitxi gorabehe- ra, 250.000 entzule dauzka egunero, eta guk hor inguruan. Biak batu eta ia milioi erdi pertsona dira. Lau biztanletik bat.

—Telebistari inbidiarik ez orduan, alde horretatik...

—Ez.

—Eta albistegiak lantzeko orduan ere desberdinak dira irratia eta telebista? Behin irakurri nuen irratiak emoten duela berria, telebistak baieztatzen duela eta egunkariak zabalago emoten duela...

—Definizio ona da. Irratiko albistegietan ezin duzu oso gauza sakonik esan. Geu gara lehenengo titularra, baina titularra

batez ere. Hau ere gure madarikazioa da. Laburrak izan behar gara, baina aldi bere- an ahalegindu jendearengan arreta sort- zen. Hori da gure erronka, eta erronka polita da. Ez daukagu besterik. Baina behintzat gaitasuna daukagu pare bat esaldigaz jendeari pentsarazteko.

—Telebistan hiru, edo asko jota lau albistegi egoten da egunean, luze sama- rrak gainera...

—Luzeegiak, esango nuke.

—Informazioaren profesional modura dinozu hori, edo ikusle huts modura?

—Bietara.

—Irratian, aldiz, orduro emoten dituzue hiruzpalau minutuko pilulak, albistegi luzeagoren bat edo bestegaz batera. Ho- rrek behartu egiten zaituzte? Hau da, orduro gauza bera ez errepikatzeke ahal- gina egin behar duzue?

—Hara, gure albistegiak errepikakorrek izaten dira, bai. Argi eduki behar duzu zein den eguneko gaia, eta gai hori ordu- ro kontaktu behar duzu, jendeak ez ditue- lako albistegi guztiak entzuten. Bat en- tzuten dute. “Ea zer dagoen munduan”. Zuk jakin behar duzu berritu behar ditu- zula gaiak, baina eguneko gai hori galdu barik.

—Ordu batek jotzen duenean, puntuan, irratia piztu egiten dira, hiru minutu geroago barriro amatatzeko?

—Bai. Hemen, jendeak asko irakurtzen du, asko entzuten du irratia, asko ikusten du telebista... Gainera, ikuspuntu kriti- koagaz. Jendeari hemen informatuta ego- tea gustatzen zaio.

—Eta ondo informatuta egon daiteke irratia besterik ez entzunez, telebista eta egunkari barik?

—Ez, irakurri egin behar da. Eta gaine- ra, komunikabide batzuk baztertzekoak dira: COPE, Onda Cero, El Mundo... Holan dinotsut, argi eta garbi. Hori ez da kazetaritza. Jende askok dino, ez neuk bakarrik, benetako kazetaritza - “benetako” esatea zilegi bada- hedabide publikoetan egiten dela, ez pribatuetan. TVEn albistegi onak egiten dira, EITBn ere bai. Telecinco, Antena 3, Cope... hori lotsabakeria itzela da. Carmen Caffarel RTVEko zuzendariak esan zuen hedabide publikoetan, behintzat, informazioak gehiengo par- lamentario bati erantzuten diola. Klien- telismoa sortzen da, baina badago gehiengo bat atzetik. Aldiz, zeintzuk di- ra Telecinco, Correo, El Mundoren interesak? Ezkutuan dagoz. Agerian, baina ezkutuan. m

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
 Kalea & zenb.....Herria.....  
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
 Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**  
 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz  
 tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



ZUBITXU, GORLIZ

# Urlaster ahaztuak

“Erreka txikiak egiten dituzte handiak”, dio esaera zaharrak. Hori, gure eskualden behintzat, ez da gertatzen, oso txikiak dira-eta erreka guztiak bazter hauetan. Beste esaera zaharrak dioena berriz, egia borobila da: “Erreka oro itsasorat ari”. Kandelu, Arpintxe, Urgozo, Lematza, Txatxarro, Mendibil.... eskualdean dauzkagun errekak dira. Nork ezagutzen ditu ordea? Urlaster ahaztu horien bila abiatu gara eta askoz gehiago badira ere, guk herri bakoitzeko bat aukeratu dugu.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



ARPINTXE, ARMINTZA



TXATXARRO, PLENTZIA



URGOZO, BARRIKA



ERREKASTOA URDULIZEN



BOLUE, GETXO



LEMOTZA, SOPELA



MENDIBIL, LEIOA



BERANGO



BOLUE, ERANDIO

## zineeskola

Oskar Fernandez

## Gestalt eta Phi efektua (I)

XIX. mendearen amaieran hainbat gertakari garrantzitsu egon ziren, haien artean bi aipatuko ditugu: zinemaren sorrera eta psikologia esperimentalaren zabalkuntza. Lehenengo laborategia 1879an sortu zen Wilhelm Wundten eskutik. Hasierako hamarkadetan zinemagintzak garaipen nabarmena lortu zuen eta garaipen hau pertzepzio teorien sorreraren denbora berean, batez ere ikusmen pertzepzioarena, kokatzen da. Teoria horien artean gehien ezagutzen zena eta ospe handiena lortu zuena Gestaltkoa izan zen. Teoria honetan bi ikerlari aipatu behar dira: Hugo Münsterberg eta Rudolf Arnheim. Bi ikerlari hauek zinemaren irudipena aztertu zuten, baita irudipen honek ikusleengan sortzen dituen baldintza psikologikoak ere. Hugo Münsterberg zinemaren lehenengo -benetako- teorikoa izan zen. Bera izatez filosofoa eta psikologoa zen eta Wundten ikaslea ere izan zen. Interes handia izan zuen ikusleak filma nola barneratzen zuten jakiteko. Ikerlari eta idazle honek zinemaren gauzarik funtsezkoena, itxurazko mugimenduaren ekoizpena alegia, burmuinaren ezaugarri bategatik azaltzen zela frogatu edo egiaztatu zuen. Aipatutako ezaugarri berezi hori "Efektu-Phi" deitzen da. Beraz, "erretinaren iraunkortasuna" ez da gure burmuinetan mugimenduaren ilusioa edo irudipena sortzen den arazoia, "Efektu-Phi" delakoa baizik. Ideia honi esker Münsterbergek zinemari buruzko kontzepzio bat garatu zuen non zinema prozesu mentala den eta arte bihurtzen den, baina ez edozein arte, espiritu arte baizik. Horrela, zinema aditasunaren artea, oroimenarena, irudimenarena eta zirrarenena ere bada. Azken finean, zinemak, bere osotasunean harturik, gizakiaren mekanismo psikologikoak imitatzen ditu. 4

## ZINEBI, gora oihala!

Hilaren 27tik abenduaren 2ra, 42 herritatik etorritako 93 film baino gehiago ikusgai

**Bilboko** Nazioarteko Film Laburren eta Dokumentalen Zinemaldiaren 48. edizioa da aurtengoa, azaroaren 27 eta abenduaren 2a bitartean ospatuko dena. Aurtengo ekitaldiko Nazioarteko Lehiaketara (fikzio, dokumental eta animazio atalean) 2.615 lan aurkeztu dituzte, eta epai-mahaia 42 herrialde desberdinetatik heldutako 93 aukeratu ditu; 53 fikziozkoak dira, 20 dokumentalak eta 20 animaziozkoak. Alemania, AEBak, Frantzia zein Britainia Handitik eta, lehenengo aldiz, Etiopia, Kenia, Filipinatik eta Malasiatik bidalitako lanak daude. Ezin ahaztu Latinoamerikatik jasotakoak, Argentina, Brasil, Kolombia, Kuba, Mexiko, Peru zein Venezuelatik.

## «Getxon ere ikusi ahal izango dira Bilboko zinemaldiko filmak»

Euskal Zinari dagokion atalean 10 lan lehiatuko dira. InfoEuskadi atalak Sail Ofizialekin kanpoko 14 lan eskainiko ditu, EBA atalaren barruan Euskal Herri-ko bideoarte eta alor anitzeko ikus-entzunezko lanak emango dira, Clip-Klub atalean Iker Trebiñoren hainbat biodeklip egongo dira ikusgai (Barrikada, Fermin, Che-



Arturo Ripsteinek jasoko du Mikeldi Ohorezko saria

noa...), Euskal Filmotekaren atalak Ivan Zulueta 1972ko film labur bi berreskuratu ditu... Zineko izarrek erabilitako jantzien erakusketa ere antolatuko dute. Mikeldi ohorezko saria aurtengo Arturo Ripstein mexikarrak jasoko du, eta Lehiaketako epai-mahaiko presidentea James Benning estatubatuarra da.

Getxon ere Zinebiko film batzuk ikusteko aukera egongo da (hilak 27-28). Zinebiko gainontzeko atalen eta ekitaldien berri jasotzeko:

Informazio gehiago: [www.zinebi.com](http://www.zinebi.com)

## Ez galdu &gt; "V for Vendetta"

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: azaroaren 29a, eguaztena • Ordua: 19:00 • Zine Kluba



Zinemagintza behin baino gehiagotan komikietan sortzen diren istorioxoetan oinarritzen da. Film honekin horixe gertatzen da, baina kasu honetan lortutako emaitza oso ona eta interesgarria da. Fikziozko filma da, Alan Moore eta David Taylorrek sortutako komikian oinarrituta dago. Filmaren zuzendaria James McTeigue da eta ekoizleak, berriz, Wachowski anaiak. Pelikula horrek garatzen duen istorioa Britainia Handian kokaturik dago, Londresen hain zuzen ere. Hiritarrek pairatzen duten erregimen politikoa diktadura latza da. Erregimen faxista honek biztanleak izugarriko kontrolpean mantentzen ditu. Hala eta guztiz ere, jendeak bere bizimoduan murgildurik ez du ezertxo ere adierazten erregimenaren aurka. Baina gerizpean pertsona kementsu, azkarra, erakargarri eta maitagarri bat dago eta dena hankaz gora ipintzeko prest.

## Aho Bete Kanta webgunea

Azken 40 urteotako herri musikaren 230 kanten letrak, partiturak... batu dituzte



Informazio gehiago: <http://ahobetekanta.arteola.com>

**Euskal** Herriko Musika Eskolen elkarteagaz lankidetzan, eta Eusko Jaurlaritzaren finantziazioagaz, Arteolak koordinatutako egitasmoa da Aho Bete Kanta ekimena. Barruan DVD-Roma daroan liburua aurkeztu zuten lehenengo, eta gero amaraunera eroan zuten egitasmoa. Azken 40 urteotan euskal herri musikak sortatutako 85 egileren 230 kanta biltzen ditu webguneak; eta abesti bakoitzaren gaineko letra, egilea edo taldea, partitura (instrumentu desberdinetzat berezita), argazkia eta informazio laburra eskaintzen dituzte.

Egitasmoaren helburua herri musikaren transmisioa musika eskoletan txertatzea da, euskal herri musikaren sorkuntzak beharizan

didaktikoetara eta pedagogikoetara egokitzea, musika irakaskuntza ez arautuan sartzeko asmoz; baina gizarte osoari eskaini diote herri musikari hurbiltzeko aukera itzel hori. Besteak beste hurrengo talde edo musikarien kantuak bildu dituzte: Erramun Martikoena, Itoiz, Oskorri, Benito Lertxundi, Hertzainak, Hiru Truku, Argoitia neba-arrebak, Ruper Ordorika, Mikel Laboa, Pier Paul Berzaitz, Txuma Murugarren, Berri Txarrak, EH sukarra, Kortatu, Su Ta Gar, Anje Duhalde, Anari, Tapia eta Leturia, Mikel Urdangarin, Txomin Artola, Zarama, Delirium Tremens, Urko, Sorotan Bele, Alaitz eta Maider...

Hala, hurrengo lau urtean mila bat erreferentziagaz osatu dute webgunea. m

## diskoak

**Lost and found**  
Daniel Johnston  
Houston Party



Maitasunaren edo bere gogoeten inguruan kantatzeko erabiltzen ditu musikagileak bere abestiak. Disko honetan ere, horixe da aurkituko duguna: maitasunaren bilaketa, batzuetan irabaziz eta beste batzuetan galduz. Bere lanetan, Johnstonek ez ditu bere eraginak ezkututzen: The Beatles, Beach Boys... Abesteko modu oso berezia erakusten digu abeslariak disko honetan.

**Amateur universe**  
Atom Rhumba  
Oihuka



Oraingoan ere, diskoa Kaki Arkarazogaz grabatu dute Garate estudioetan. Edizio mugatua da lan berria: LP eta karpeta bikoitza (CDan aurkituko ez dugun aparteko kanta bat dakar eta diseinu oso berezia dauka). Hainbat laguntzaile eduki ditu diskoak: Jon Wahl, Desiree Garcia, Piratak, Errapel Biurrun, Hendrik Roever eta Aritz Elizalde, besteak beste.

**Isilean**  
Urgabe  
Oihuka



10 kanta bildu dituzte bizkaitarrek euren hirugarren lana den honetan. Oraingoan, gitarak gogorragoak dira, baina balada batzuk ere sartu dituzte. Powerpoparen eta rockaren arteko batuketa da, azken finean. Besteak beste, Aitor Gorosabelen (Su Ta Gar), Francis Diezen (Doctor Deseo), Jon Montanchezen (Ehiztari) eta Belen Fernandez txelo jotzailearen kolaborazioak eduki dituzte.

## diskoa &gt; Sagarroi



**Kasba music** Bartzelonako disketearen eskutik, disko berria kaleratu du Iñigo Muguruzaren taldeak. Ohiko taldekideei, Miren Gaztañaga (ahotsa) batu zaie oraingoan. *Baleike* izenburupean, hamar abestiz eta bideo klip batez osatutako diskoa sortu dute Sagarroi taldekoek. Ondarroako Santos Records estudioetan grabatu dute, besteen artean, Amparanoia, Andoni Delirium, eta The Solanos taldeen kolaborazioak izan dituztelarik. Carlos Zubikoa, Gorka Baskarana, Asier Ituarte eta Iñigo Muguruzaren laugarren lana da *Baleike*, 2001ean euren ibilbideari hasiera eman ziotenetik.

## EKO &gt;

## Betiko euskal kantak

Azaroaren 24an *Euskal Kantarik Onena* Euskal Telebistako saioaren emanaldiaz gozatzeko aukera izango dugu Getxo Antzokian. 19:30etik aurrera, telebista-saioan jardun zuten hiru kantarien ahotsak izango ditugu etzungai: Xabi San Sebastian, Bihotz Gorospe eta Jon Urdangarin. "Xalbadorren heriotza" eta "Lau teilatu" kantak izan ziren saioko irabazleak, baina hauek gain, beste asko ere entzun ahal izango ditugu. Emanaldia, *Euskal Kulturaren Jardunaldien* barruan antolatuko dute.

etorri  
eta  
ikusii!!

**MORIXA**  
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

## Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

**Odola emateko egunak**  
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako Erredentor eliza  
**azaroak 21**

Erromoko kultur etxea  
**azaroak 23**

Zatoz odola ematera,  
ez itxaron!

Informazioa: 900 303 404

**GALEA  
ASESOSES, S.L.**

**AHOLKULARITZA  
JURIDIKOA, FISKALA  
LABORALA ETA KONTABLEA**

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA  
% 94 460 95 12  
Fax: 94 491 11 31

[liburuak]

## Literatura barra-barra

**Mahai-inguru bat eta errezitaldi musikatuazaro amaieran**

**Euskararen** Egunaren harira, Getxon antolatzen diren Euskal Kulturaren Jardunaldien barruan hamaika ekitaldi deigarri iragarri badituzte ere, badira bi literaturaren lurraldearen ingurukoak, eta horien gainean ipini dugu begia.

«Hilaren 23an eta 30ean  
izango dira hitzorduak  
Algortan»

*Hamar mezu eta dei bat* amodioaren gaineko errezitaldi musikatuagaz gozatzeko hitzordua hilaren 23a izango da (Piper's Irish Pub, 19:30). Poema eta testuei Patxi Zubizarreta idazleak jarriko die ahotsa eta Txema Garces (kontrabaxua) eta Josetxo Gola-Arribere (saxoa) musikariek doinuua. Hurrengoan datza istorioa: *Amodiozko historia bat da eta neska batek maitale ezezagun baten hainbat amodiozko mezu jasoko ditu, poemak eta testuak, batzuk erromantikoak, beste batzuk sentsualak, gordinak ere bai...* eta hori guztia musikan bildua.

### Literaturaren magalean berbetan

Hilaren azkenengo eguna, eguena, aukeratu dute literaturaren gaineko mahai-ingurua egiteko. Villamonteko kultur etxean (19:30) hurbilekoen ahotsetatik gure litera-



Literatura izango dute hizpide Unai Elorriagak, Xabier Payak eta Laura Mintegik

turaren egoera, iritzi, aurreritzi, proposamen... eta abarren berri edukitzeko parada egongo da. Mahaiaren alboetan gurean ezagunak diren pilotuek gidatuko dute liburuen hegazkina: Laura Mintegi (idazlea), Unai Elorriaga (idazlea) eta Xabier Paya (itzultzailea). Bidaiariak literatur aeroplano horixe hartzea besterik ez daukate, beraz, euskal literaturaren zerurantz aineratzeko.

Ekitaldiok Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Egizu elkartearen Irakurzaileen Txokoa ekimenak elkarlanean antolatu dituzte, esan legez, VIII. Euskal Kulturaren Jardunaldien barruan. m

liburuak



**Peaceful soldadua**  
Michel Morpurgo  
Alberdania

Lehen Mundu Gerrako lubakietan borroka egin zuen mutil gazte bati buruzko istorioa da honako hau. Thomas Peaceful haurtzaroko oroimenetan murgiltzen saiatzen da gerra-zelaietan dagoela. Halere, bizitza aldatuko dion zerbaite gertatuko zaio.



**Hiri gorazarre**  
Juan Ramon Makuso  
Elea

Belarrira xuxurlatu eta adimena hartzen duen poesia eskaintzen digu Juan Ramon Makuso idazleak. Egileak ez du poetika alboratzen, baina ez du liburu honetan igorri gura duen mezu zehatza metaforen zailtasunean gaitzen utzi.

[kirola]

## Urduliz Eskubaloi taldea

**Lehenengo mailan** dihardute urduliztarrek taldearen **30. urteurrenean**



Aurten Lehenengo mailan diharduen Urduliz Eskubaloi taldeko jokalariek

**Orain** dela 30 urte, 1976-77 denboraldian Erregionaleko bigarren mailako senior talde batez eta gazte mailako beste talde batez ekin zion Urduliz Eskubaloi taldeak ibilbideari. Apurka-apurka, mailaz maila, gora egin zuen taldeak; senior taldeak 96-97 denboraldian Lehenengo mailara igotzea lortu zuen, hala ere, bi urteren ostean galdu zuen maila. 2002-03 Euskadiko txapelkunorde izan ziren, txapelkun hurrengo urtean, eta iaz bai, azkenean, Lehenengo mailarako txartela eskuratu zuten berriro ere, eta *«aurten maila mantentzea da gure erronka nagusia»*, adierazi digu Urduliz Eskubaloi taldeko presidente eta jokalaria Diego Izquierdok. Seniorren ibilbideagaz batera, gainontzeko mailetan ere aurrera egin du bikainki taldeak, gaur egun federatu mailan ondorengo hiru taldeak daukate urduliztarrek, hirurak Bizkaiko txapelketan: beste senior talde bat (gizonezkoak), gazteen taldea (gizonezkoak), eta kadete taldea; guztira 62 jokalaria inguru. Osterantzean, iaz beste aurrerapausu ausart bat egin zuen taldeak, Uribe Eskubaloi Eskola sortu zuen. Urduliz, Gorliz,

Plentzia, Sopela eta Mungia 14 taldez osatzen da eskola, 150 neska-mutil baino gehiagok jokatzen dute bertan. Kimuen mailan mutilen talde 2, neskatuen 3 talde eta mistoen beste 3 daude. Benjamin mailan mistoen 3 talde daukate; eta amaitzeko Haur mailan mutilen 2 talde eta neskatuen bakarra. Izquierdok azaldu duenez, *«etorkizunean, 6 urte barru, gizonezkoen alorrean daukaguna andrazkoenean ere eduki*

**«Abendu aldean antolatuko dute 30. urteurrena ospatzeko ekitaldia»**

*gura dugu; eskolan neskatu asko dabilte orain, eta barbarako, hurrengo urtean kadete mailako andrazko taldea edukiko dugu; helburua andrazkoen alorra bultzatzea eta indartzea da».*

Abendu aldean antolatuko dute 30. urteurrena ospatzeko ekitaldia Izquierdok jakinarazi legez: *«Eskubaloi erakustaldia, argazki erakusteta, bazkaria... prestatuko ditugu, 25. urteurrenkoa baino apalagoa izango da, baina gure asmoa da eskolako kirolariek ikustea nagusitzean ere eskubaloian jolasteko aukera badaukatela».* m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kirol moda**




**350 M<sup>2</sup>**  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-

**Lacorfris, s.l.** SERVICIO



• MARKA GUZTIAK  
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA  
• 3 HILABETEKO GARANTIA  
• 25 URTEZ ZURE ZERBITUA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**Helena Golab** > dantzaria

“Hemengo kultura deigarria iruditu zitzaidan, baita kulturarekiko dagoen interesa ere”



Helena, Getxoko Paella egunean

Zerk ekarri du Poloniako neska bat Algortan bizitzera? Helena Golaben kasuan, dantzak. Amsterdamen ikasten zegoela bertoko dantzari bat ezagutu zuen, Natalia Monge. Alkarregaz lanean hasi eta gurera etortzea erabaki zuen Helenak, orain lau urte. Arinetan egin behar izan genuen berbaldea, hurrengo egunean Hanburgora alde egin behar zuen-eta, nola ez, dantza egitera.

—Zelakoa izan zen zure lur-hartzea gure artean?

—Hasierak beti izaten dira gaxkak eta gogorak, hizkuntza lehenbailehen ikasi behar duzu-eta. Baina orain oso ondo nago! Hemengo kultura deigarria iruditu zitzaidan eta jendeak kulturarekiko daukan interesa ere bai, Europako hiriburu handiak alderatu ezin daitekeen arren...

—Agian European kulturaren kontsumoa hedatuago dago...

—Gauza da European kultura kalean dago e-

la eta hemen horren bila joan behar duzula.

—Zer dantzatzen duzu?

—Dantza garaikidea dei dezakeguna, baina nik nahiago dut “dantza berria” deitzea, izan ere, dantza, muktimedia, antzerkia... uzta-tzea gustatzen zait.

—Dantzak, zure kasuan behintzat, bidaia-tzea suposatzen du.

—Halaxe da. Valentziatik heldu naiz gaur, Blanca arrieta koreografaren lan bat egiten ibili naiz, eta bihar bertan Hanburgora joango naiz, beste proiektu batean parte hartzera.

Hainbat lekutan ibili naiz. Amsterdamen ikasi nuen eta praktikak ere kanpoan egin nituen: New Yorken eta Venezuelan. Neuk ere ez dakit esaten nondik ibili naizen!

—Dantza egiteaz bizi daiteke?

—Hemen ezinezkoa. Beste gauza batzuetan egin behar duzu lan bizi ahal izateko. Nik, esaterako, Estatutik kanpo ere gauzak egiten ditut. Baudaude garai onak eta batzuetan dantza egiteaz soilik bizi zaitezke, baina ge-

«Hemen ezinezkoa da dantza egiteaz bizitzea»

hienetan kontuz ibili behar duzu diruagaz. Ondorioz, entseatzen duzun ordu kopurua ere horren araberakoa da, euskal dantzari gehienek euren lanbideak dauzkate... Hori aldatzen saiatzen gara. Arazo ugari daude dantzaren munduan, baina esan beharra daukat gura duguna egiten dugula, beraz... ezin kexatu!

—Non entseazen duzue?

—Bilbon hainbat leku daude, guztiak erabiltzeagatik ordaindu beharrekoak: Muelle 3, La Fundición, El Mono... Batzuetan, Udalak utzitako aretoetan ere jarduten dugu, baina horiek ez daukate zorua prestatuta...

—Zein izan da zure azkeneko ikuskizuna?

—Bilboko Bad-en egin genuen: Gool.AB. Futbolagaz zerikusirik duen lana da eta horretarako, 11 mutil behar izan nituen. Euskal Herrian horiek topatzea ezinezkoa izango zela esan zidaten eta dirua nahikoa ez dela ikusita... baina lortu egin nuen!

—Ez daukazu herriminik?

—Gutxienez urtean birritan joaten naiz etxera familiagaz eta lagunak egotera. Oraingoz ondo nago Algortan eta ez dakit inoiz bueltatuko naizen. Etxean bezala sentitzen naiz hemen! m

**Esakere** > “Gose bera da gozo!”



Irudia: Gorika Vazquez

Nok ez dau proba Txinako yanari? Eta pizza bat edo bolognesa eran egiñeko *espaghetti* batzuk? Gaur egun aitzitxe edo amama zaharrenak bere, sarri yanta dauz holau jenerok, eta kanpoko gehiau bere, *kebab* eta... Baia yaten dauzen bitarten, esango doskue auren sasoiari gauza gitxiauez lotzen zirela pozik: merendateko gaztaiña bero batzuk negun eta txokolate ontzatu bet ogiez uden, eta ze pozik! Lar ez da ber gose daunen, ze gosek berak zorrotzen dauz hagiñek eta emoten dotso gozotasune yanariri.

Esakera hau gure herriteko edozein amama edo aitzitxeri entzungo dotsezue.

Gure **berbakere86**

Testua: **Xabi Bilbao**

## ZELAN ESAN Berbetari lagunduteko (2)

Berbakere 83n alkarrizketa erdiko berba eta esakeratxu batzuk ikusi genduzen, berbete erraztuteko eta lagunduteko erabilten direzenak. Gaur aurrera egingo dogu era horretako berbakaz.

### Berbaldin hasikeran erabilten direzenak

Hasteko, ...  
Hasteko, hau esango dotsut, ...  
Lehelengo gauze da ...  
Beste ezer baiño lehelau, ...

### Esaten direzen gauzak antolatuteko

Alde batetik..., eta bestetik...,  
Lehelengo... gero... ta ganera... ta akabun...  
Ta esan doten lez, ...  
Bai... eta bai...  
Ez... eta ez ...  
Nahi .... nahi ....

### Berbaldi akabakeran erabilten direzenak

Akabateko, ...  
Ta berba biten esateko,...  
Ta hau da dana, ...  
Hemen akabako dot,...  
Holantxe ba, hautxe da kontu / konklusio,...

### Adibidek

—Normala da oiñ jentek ume gitxiau aukite lehen baiño, ze, **hasteko**, ber (behar) dozu leku handi auki etxen, **lehelengo gauze da** etxetxu bet aukite ganorazko, ta oingo pisutxuten zenbet ume kabuten direz ba? **Ta ganera** oiñ umek lehen baiño askoz denpora gehiau emoten daude etxen barrun, **nabi** telebisiño ikusten, **nabi** eskolako beharrak iten (egiten), **nabi** olgetan,... Lehen kalen emoten gendun egun guzti; **hori alde batetik**. Ta **beste aldetik** diru bere, lehen baiño gehiau ber da: lehen lau txakur txikerragaz konponduten ziren aitxe-amak, **bai** yanari ta **bai** errope erosteko, ta **ganera** sarri erosi bere kasik ez zan iten: lehengusun edo nebarraza zaharran errope erabilli ta listo!

—Bai, baia lehen danak ibiltzen ziren holan ta oiñ dotore imiñi ber direz umek ze...

—Bai, bai, **bolantxe da**, **horitxe da kontu**, oiñ nok eron ume ikastolara zapata zaharrakaz? Oiñ kontuz, barrik erosi ezkeron bere, ze marke erosten dozun!

I

**Iñaki Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23  
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**Errotalde**  
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

**GAVRKO**

GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoia

## Kabratxo pudina

**H**asteko, egosi kabratxoa, arantzak kendu eta papurtu. Bestetik, barazkiak (tipula, porrua, azenarioa eta piper berdea) txiki-txiki zatitu eta ondoren zartagin batean su ahulean ondo potxatu arte egin. Arrautzak irabiatu eta esnegainarekin elkartu. Hau guztia barazkiekin eta kabratxo papurtuarekin ondo nahastu. Pipermin zuria eta gatz gustura bota. Gero moldea eguzkilore olioaz busti, eta ogi birrindu apur bat ipini. Egin dugun oreaz bete moldea eta Maria bainuan, 180 gradutan ordubetez labean eduki. Pudina hoztu eta gero, xerretan zatitu eta platerera. Marisko kremarekin, mahonesa edota saltsa arrosarekin zerbitu. On egin! <sup>m</sup>

osagaiak (8 lagunentzat)  
500 gramo kabratxo • 4 arrautz • 1/4 litro esnegain  
tipula bi • porru bat • piper berde bat • azenario bat • pipermina




itsaso arana / jolastokikoa

## Malvasia mahatsa

**E**rdi Aroan edaten zen ardaorik ospetsuenari izena eman zion mahats honek. Garai hartan gorteetako damek euren zapiak ardao honekin perfumatzen zituzten. Gaur egun, berriz, gero eta gutxiago landatzen da, batez ere Italian (Sizilia), Korsikan, Portugalen, Austrian eta Espainian.

*Moscate*la baino nobleagotzat jo izan da beti, baina biek badaukate antzik: mingostasun arina eta gozotasuna. Jeneralean postrerako ardaoak egiteko erabili izan da *malvasia*, hau da, ardao gorpuzdunak, aberatsak estraktuetan, Moscatel zaporedunak, oso perfumatuak ia almizkaltuak izateraino. Postrerako ardao bortitz hauek egiteko ez eze (zahartzeko oso egokiak direnak) bestelako ardao arinagoen ezaugarriak indartzeko ere erabili izan da. Errioxan, Goialdean apur bat landatzen da, izan ere Viurak lekua kendu dio. Nafarroan, Calatayud, Toron eta Bierzon eta Kanarrietan ere aurki daiteke. <sup>m</sup>



## Gaztelu taberna

Algortako taberna mitikoen adibide



Argazkian, Armando Herran

**Sartu bezain pronto** aurrez aurre aurkituko dugu Gaztelun aurtan prestatu duten gabon otzara erraldoia. Gabonak oraindik heldu ez diren arren otzara bat salduta dago jada, bigarrena zozketatzen da orain. Etxe artean ezkutatuta dago, baina jende asko da Armando Herran Algortarren tabernan ardo goxoren bat hartzen duena. Orain dela 35 urte hasi zuen Gazteluk bere ibilbidea. Garai hartan Butroeko Jose Mari zen honen jabea, horregatik tabernaren izena. Armandok, berriz, Algortako Portu Zaharrekoa dela argi utzi digu, bertan daukan txaluparen argazkia seinatu digularik.

Patata tortilla, gazta, otarteak... pintxo aukera zabala aurkituko dugu bertan, baina den artean rabak azpimarratu ditu jabeak *"herriko hoberenetarikoa din"*. Eta noski, hau guztia ardo eta garagardo gozoz bustitzeko aukera.

Armandorekin Algortako giroari buruz berbetan egon gara: *"Poteoa asko jaitzi da Algortan, baina ez Algortan bakarrik, herri guztietan"*. Hala ere, bere taberna alboko Tella Gorri plazaren inguruan asteburuetan jende lepogotzen dela esan digu. Gaztelun *"jende nagusia izaten dugu tabernan jeneralean, gazteek beste taberna batzuetara jotzen dute"*. Baina ardo bat hartzeko gogo daukan edonorentzat irekita egoten dira Gazteluko ateak, jakina. Lokala handia da, beraz, guztientzako tokia dago.

Askok kontrakoa uste duten arren, Algortako herri giroak oraindik bizirik dirau, eta horren adibide argia da Gaztelu taberna, 35 urte eta gero herrikoen zintzurak bustitzeko aukera ematen jarraitzen du-eta. <sup>m</sup>

Gaztelugatxe 3, Algorta Tel.: 94 4911474

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25  
AREETA

## Asador Goiez



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak nomberaren gus-tura
- Egunero karta berezia
- Gaez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA  
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik  
onenak ditugu  
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

CAFE  
**Usategi**  
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

**KONTXI**  
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93

**G** gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25  
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29  
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58  
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14  
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

**prentsa • aldizkariak**  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

**aldizkaria  
etxean jaso  
nahi baduzu**

uk@aldizkaria.biz  
94 491 13 37

[horoskopoa]


<p><b>URA</b> t</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Zure bizitzan zerbait jazoko den sentazioa daukazu. Zer izango ote da? Loia kentzen dituz eta zure ingurukoek ez dute gertatzen zaizuna oso modu serioan hartzen. Urduri egotea ez du merezi.</p>	<p><b>OTSOA</b> t</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Unibertsitatean zaude dagoeneko, baina ez dakizu ikasketa egokiak aukeratu dituzun. Ikasturte hau froga moduan hartu eta, ez bada aukera egokia izan, hurrengo ikasturtea daukazu aldatzeko. Oraindik garaiz zaude...</p>	<p><b>ADARRA</b> t</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Osteak gero eta txarragoak dira, ezta? Adina da hori! Jadanik ez gaude gazteak ginen bezala iriteteko moduan... Halere, beste modu batean bizi ditzakezu jaiak eta askoz gehiago gozatu. Sines nazazu!</p>
<p><b>AITZURRA</b> t</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Zure herriko udalak bizlagunengatik ez duela ezer egiten diozu beti. Baina, egia esateko, ez duzu inoiz gauzak aldatzeko ezer egin; beraz, ezertaz kezatzeko eskubidea duzula uste duzue? Gehiago parte hartu...</p>	<p><b>HOSTOA</b> t</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Eurria gorroto duzula? Ba herrialde onenean jaio zara zu! Euskal Herrian ez duzu eguzki askorik ikusiko, baina jakin ura bizia dela eta gure paraje berdeak dauden moduan mantendu gura badituzu, eurria jasan beharko duzula.</p>	<p><b>EGUZKIA</b> t</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Euskara gehiago erabili motel! Ez al da ba zure ama hizkuntza? Zure jarrerak ez du batere laguntzen. Zertarako euskaltegia joan gero ez badizu ezertarako balio? Ez zara konturatzen euskarak aberasten zaituela?</p>
<p><b>GARIA</b> t</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Ez duzu negua gogoko eta Kanarietara joatea pentsatzen ari zara. Betirako udan bizi gura duzu eta berogailua topera izaten duzu etxean. Lagunak eta familia, ordea, ez dituzu hemen utzi gura. Aukeratu beharko duzue!</p>	<p><b>LASTOA</b> t</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Lanarekin nazkatuta? Jefeak ez dizkizu oraindik oporrak eman? Soldata urria dela? Lankideen artean kriston konpetitibitatea dagoela?... Ez al duzue pentsatu lana aldatzea? Kurrikulatuak bidaltzen hasi behintzat, ia zer gertatzen den!</p>	<p><b>IRATZEA</b> t</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Azaroan sartu gara dagoeneko eta aste barruan, arratsaldetan, ez dago inor kalean. Udako giroa faltan botatzen duzue... Zergatik ez duzue zure denbora zerbituegiz betetzen? Gimnasia joan, ingelesa ikasi, irakurri...</p>
<p><b>META</b> t</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Amodiozko karta anonimoak idaztea ez dakit maite duzun pertsona lortzeko modurik onena den, ez daki nor zaren-eta! Zergatik ez dituzue umekeriak albo batera uzten eta aurpegira esaten diozue? Argiagoa izan.</p>	<p><b>HAZIA</b> t</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Zuk ezkondu gura duzu, zure bikorekideak ez. Berak umeak eduki gura ditu, zuk ez. Zerbitetan bat egiten duzue? Aurrera egiteko ondo pentsatu beharreko gaiak dira horiek. Bietako norbaitek amore eman beharko du.</p>	<p><b>NEGUA</b> t</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Urrutira bidaiatzeko aurrezten ari zara. Oso ondo iruditzen zait. Nora joan gura duzue? Indiara, Vietnamera, Keniara, Argentinara, Australiara... Makina bat leku zoragarri daude munduan. Ahaztezina izango da.</p>

**mungia**  
oKINdegia

*Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA





denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin


1. Ikasiak, eskolan ibiliak. 2. Erroa, sustraia. Emea ez dena. 3. Gorabeherak, liskarrak. 4. Sail, soro. Abederako azken eta lehen letrak. Berrogeita bederatzia. 5. Bizkaieraz, beltza. Ate, hitz elkarretan. 6. Bokala. Zuten. 7. Ikatz egileak. 8. Lore mota. Arte. 9. Yemengo hiri eta portu garrantzitsua. Egin iezaioak. 10. Atzizkia. Bihia, garaua. A bikoitza.

Goitik behera

1. Hitzezko liskarrak. 2. Erakunde bateko zatia. Arabiarren artean, auzi zibiletarako epaile. 3. Kirola gogoko du. 4. Onartu ezin dena. 5. Euskal Herriko sindikatua. Ez hika ez beronika. Berrogeita hamar. 6. Bokala. Izaera du. Bokal bikoitza. 7. Ipar, 'kada' balio duen atzizkia. Ale edukiera neurria. 8. Oinarizko isurkaria. Ate. 9. Etxe sorztailea. 10. Atzizkia. Behar, egiteko. Alfabetatze eta euskalduntze erakundea.

Soluzioak

A	V	A	V	E	L	A	K	I	K
K	O	I	G	E	N	E	A	D	E
I	T	E	R	T	A	L	I	A	D
K	A	N	I	K	Z	A	V	I	K
N	E	T	A	K	U	Z	E	Z	A
A	T	A	V	A	Z	T	Z	A	B
L	I	A	Z	H	O	L	V	A	L
K	A	B	I	R	A	K	T	I	R
A	V	A	R	A	K	Z	A	I	N
A	K	A	T	U	A	K	E	S	K



JON BIDEAK UITZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

## Neguritarrak Jolasetan, 1945

**Neguriko** lagunarteko partida duzue goikoa, ezkonduen eta ezkonbakoen artekoa. Zehatzak izateko, ezkonduen bat edo bi baino ez zeuden, gehienak ezkonbakoak ziren-eta, hala ere, batzuek emaztegaia bazeukaten. Guztiak neguritarrak zirenez Jolasetan jokatu zuten partida. Bestalde, jakin ahal izan dugunez, Athleticen Jolasetan jokatu zuen bere ibilbideko hasierako urteetan. Arbitroak (makurtuta dauden azken biak) Julio Mugarra eta Tomas Aretxabaleta izan ziren, Athleticen jokalariek. Amabitiak Diego ahiztak izan ziren, nahiz eta loreak Piedadek bakarrik eduki. Diegotarrak oso ezagunak ziren Negurin kioskoa zeukaten-eta. Argazkian daudenak hain zuzen ere, kioskoko bezeroak ziren. m

**Zutunik:** Fermin Arbide (GB), Arantza Diego, Juanito Mugarra "Errotari" (GB), Jose Luis Cajigas "Pakirri", Piedad Diego, Manolo Tejada (GB), Jose Soria (GB), Ricardo Collazos (GB), Isi Mugarra "Rene" (GB), Ignacio Aretxabala, Goio Larrauri (GB), Floren Arri (GB), Martin Arbide (GB).  
**Makurtuta:** Poli Mugarra (GB), Manolo Santos (GB), Enrique Peña (GB), Juan Bidea (GB), Juan Santos (GB), Jose Zarraga "Txato" (GB), Tomas Aretxabala (GB), Julio Mugarra (GB).

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



### Nor da?

- Arantzazun bizi da
- Musika klasikoazale porrokatua
- Eguraldi kontuetan aditua

> Aurrekoaren erantzuna: Unai Basurko  
 > Irabazlea: **Tasio Munarriz (Getxo) \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:  
**UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo**  
[uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

### Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



### Freexkue liburua

[www.argia.com](http://www.argia.com)



gure posta elektronikoa

# uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

**ANE PIKAZA** > aktorea

# “Aukera izanez gero edozein filmetan egingo nuke lan”

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Carlos Terreros**



- Defini ezazu zeure burua berba bitan.**  
Langilea eta... berba bitan izan behar al da?
- Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**  
Ez dakit, momentuz, aukera izanda edozeinetan.
- Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**  
Ez naiz batere mitomanoa.
- Ohitura txarren bat al daukazu?**  
Berandu ailegatzea.
- Aitor dezakezun bizio bat.**  
Lo egitea.
- Berriz egingo zenukeen bidaiarik al dago?**  
Bai, Egiptora. Suposatzen dut behin joanda ez dela nahikoa.
- Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?**  
Gezurra.
- Zein da zure ametsetako bat?**  
Antzerkiaren eta artearen munduan jarraitzea.
- Zein da ikusi duzun azken filma?**  
*Salvador*.
- Eta irakurri duzun azken liburua?**  
*Las ciudades invisibles*, Itano Calvinorena.
- Euskal Herriko zure txoko kuttuna?**  
Edozein hondartza.
- Goiza ala gaua?**  
Gaua. m

**LABURREAN**— Pasa den urtean hasi zen Ane ETBko *Goenkale* teleailean beharrean eta oso gustura dago bertan. Momentu honetan Donostia eta Bilbo bitartean bizi den arren, getxoztarra da. Beste gauza askoren artean, Arte Ederrak ikasten dabil EHUan orain dela urte batzuk. Hiru urtez Bilboko Artebi antzerki eskolan egon da, baina honekin konformatzen ez denez Antzerki eta Arte eszenikoen EHUko titulu propiorako ikasten hasiko da laster. *Goenkale*n hasi aurretik antzerki talde ezberdinetan ibili izan da eta antzerkia asko gustatzen zaiola aitortu digu.



informazio gehiago nahi izanez gero, deitu euskara zerbitzura

94 466 00 10-11 telefonoetara